# Goienkaria

2010eko otsailaren 5a > Egubakoitza > X. urtea > 408. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM


"Baserritarrak bere jardunean egoteko, bertako produktuak erosi behar dira"



**Rafa Uribarren**
Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua > 08

**G2a** Jostailu erotikoen tailerra Arrasaten > 31

**ARRASATE**
**Inbertsioak erdira jaitsiko direla aurreikusi du Udal Gobernuak** > 12

**BERGARA**
**Zaporeen eta artisauen feria egongo da plazan domekara arte** > 16

**ANTZUOLA**
**Datozen egunotan abiaraziko dute jangela soziala Torresoroan** > 25

**POLITIKA** > AHALDUN NAGUSIA ARRASATEN

## Markel Olanok dio indartuta aterako garela krisi honetatik

**KOOPERATIBAK EREDU**
Debagoieneko kooperatibek krisitik ateratzeko duten elkartasun sena azpimarratu du

**"BIDE ZAILA ETA LUZEA"**
Atzeralditik ateratzeko bidea "zaila izango dela esan zuen, eta egoera berria "ezberdina"

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN**
MUk gonbidatuta, krisi ekonomikoaren "egoera eta aukerez" jardun zuen > 06

**AZPIEGITURAK** > EPAIKETA

## Asier Agirre hilaren 10ean epaituko dute

Aramaioko alkatea epaituko dute herri galdeketa egiteagatik AHTren gainean > 05

### Arrasate eta Aramaio arteko errepideak ez du soluzio errazik

AHT egiteko lanen eraginez, Aramaioko Suña-Bolueta eta Cuatrovientos arteko mendia apurtu egin zen, eta aste bukaerako euri-jasaren ondorioz, lur-jausia gertatu zen Arrasate eta Aramaio arteko errepidean. Lurrak mugitzen jarraitzen duenez, ezingo da denbora luzean osorik ireki, baina ikusten dabiltza ea errail bat gutxienez ireki daitekeen. Aramaioko Udalak baimena lortu berri du erreka bestaldean beste bide bat egiteko.

Bestalde, Eskoriatzako luiziak kaltetutako lau familiarendako etxebizitzak gaur izango dira gertu. > 02-03




**ARAZOAK** Aste osoan itxita egon da Arrasate-Aramaio bidea eta zirkulazioa Suña auzorantz desbideratu behar izan dute. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 05-06
**Elkarrizketa** > 08
**Gutunak** > 10
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-27
**Kirola** > 30
**Kultura** > 32-33
**Gazteak** > 34
**Sailkatuak** > 35
**Telebista-Irratia** > 36
**Zerbitzuak** > 36
**Berri-zakua** > 37
**Eskelak** > 37
**Non-zer** > 38-39



PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
etorri aurretik izena eman!
902 110 436
www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK
Goi Eskola Politeknikoa
**ARRASATE** OTSAILAK 6 larunbata - 11:00
Enpresagintza Fakultatea
**OÑATI** OTSAILAK 11 osteguna - 18:00
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
**ESKORIATZA** OTSAILAK 18 osteguna - 18:00
ARETO NAGUSIAN

**GERTAERAK** > LUR-JAUSIA ESKORIATZAN ETA ARAMAIOKO ERREPIDEAN

# Gaur gura ditu gertu Udalak kaltetuendako lau etxebizitza

**GUZTIRA, SEI** Lur-jausiak kaltetutakoendako lau etxebizitza gertatzen ibili da Udala, eta beste bi utzi dizkio Eusko Jaurlaritzak

**ORAINDIK HOTELEAN** Martitzena arte ezin izango dute Aranburuzabalako euren etxera bueltatu gainerako hogei familiek


Horrela geratu zen Eufemiano Rodriguezen logela lur-jausiaren ondorioz, Aranburuzabala

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

Eskoriatzako lur-jausiaren ondorioz kalte handienak izan zituzten lau familiendako behin-behineko etxebizitzak gertatzen ibili da Eskoriatzako Udalak "erlojupean", arduradunen esanetan; asmoa zen gaur, egubakoitza, etxebizitzok gertu izan zitezen bizilagun berriak hartzeko.

Horrekin lotuta, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eguaztenean hitzarmena egin zuten Jaurlaritzaren hiru etxebizitza –gertatzen ibili direna eta beste bi– Udalaren esku uzteko. Udalak bereziki azpimarratu du Iñaki Pierrugues zinegotziak egindako lana akordioa agudo egiteko.

Lau etxebizitza horiek ipini gabe zeuden, eta Udala arduratu da lan guztiaz: margotzen, gasa konektatzen, altzariz janzten… Aranburuzabala kaleko 26. zenbakiko lehenengo eta bigarren solairuetako lau familiak sartuko dira etxebizitza horietan. Eta behin-behinekotasun hori luzea izango da: etxebizitza horiek kalte handiak izan dituzte, eta luze joko du dena berregitea eta konpontzea. Inork ez daki oraingoz noiz arte iraungo duten lau etxebizitza horiek konpontzeko lanok.

eli senda
Elikadura • Naturopatia
Erreflexologia
Buruko masaje indiarra
Aurretiazko zita:
943 79 05 77
Iturriotz 33, behea 2
ARRASATE

**Eusko Jaurlaritzak hiru etxebizitza utzi dizkio denboraldi baterako Eskoriatzako Udalari; horietako bat gertatzen ibili dira egunotan**

**Kaltetutako hegala eusteko eta trinkotzeko proiektua idazteko kontratua eman dio Udalak Zamudioko TEAM enpresari**

Kaltetutako beste 20 familiek Mendigoia eta Azkoaga Enea hoteletan edo senide edo gertukoen etxeetan bizi izaten jarraituko dute martitzena arte. Egun horretan bueltatu ahal izango direla aurreikusten da.

**"IA SABAIRAINO SARTU ZEN"**

Gauzak ahal den ondoen konpontzen doazen arren, Aranburuzabala kaleko 24., 26., 28. eta 30. zenbakietako bizilagunek ez dute inoiz ahaztuko urtarrilaren 31ko goizaldea. Eufemiano Rodriguez da kalte handienak izan dituen lau etxebizitzetako bateko bizilaguna, 26. zenbakiko lehen solairukoa. Hauxe esan zion Goiena Telebistari: "Lehenengo eta bigarren solairuak jo eta apurtuta daude. Bete-betean sartu zen lurra, eta paretak, armairuak… dena apurtu zuen, ia sabairaino". Honela gogoratzen zuen lur-jausiaren unea, domeka goizeko zortziak hamar gutxi inguruan: "Ni iratzarrita nengoen, goitik jausten ziren harri koskorren zaratara ohituta geundelako. Balkoian neukan landare bat paretara arrimatzen nengoen, eta hara non ikusten ditudan harri handiagoak maldan behera. Beldurtu egin nintzen eta sartu egin nintzen. Eztanda handi bat egon zen eta lurra jausi zen. Gelatik irten, emaztea oratu eta irten egin ginen".

Baina bizilagunak baino kaltetu zuzen gehiago dago: kale horretan dauden hiru negozioetako jabeak. Txalaparta jatetxeko ugazabak, Juan Roquek, hauxe esan digu: "Datorren eguenean irekitzeko moduan egon daitekeela esan didate, baina zalantzak dauzkat. Lokalak ez du kalte handiegirik, baina margotu, txukundu… egin behar da, eta atzetik ura sartzen da eta instalazioak hondatuta daude".

Orain, galerak kalkulatu behar ditu, aseguru-etxeari esateko; eta, bestetik, lokal kanpoaldea garbiketa lan orokorren barruan txukuntzen dabiltza, baina barrualderako "beharbada" berak antolatu beharko duela dena esan digu Juan Roquek. Aratuste jaietarako behintzat espero du ateak berriz zabalik izatea.

**PROIEKTUA, HILABETEAN**

Martitzenean hasi ziren sastrakak kentzen eta jausitako lur-hondakinak jasotzen Excavaciones Ferreira SL eta Ferrovial –Abiadura Handiko Trenaren lanak egiten dituena– enpresetako langileak, eta Eskoriatzako Udalak uste du astelehenean bukatuta egongo direla lan horiek. "Kontu handiz" egin beharreko lanak dira, Udalaren esanetan, izan ere, "kalte handienak jasan dituen esparrura iritsi ahal izateko, beso luzea duen hondeamakina erabili beharko da".

Horrekin batera, kaltetutako hegala eusteko eta trinkotzeko proiektua kontratatu dio Udalak Zamudioko TEAM enpresari. Proiektua idatzi ondoren gestio lanak azkar egingo dira obra ahalik eta lasterren egiteko.

Gainera, obretarako finantziazioa lortzeko gestioak egiten dihardu Udalak eta helburu horrekin harremanetan jarrita dago bai Eusko Jaurlaritzarekin eta baita Foru Aldundiarekin ere. Gaur batzartzekoa da alka-

KALTETUEN ESANAK

## "Ez dira ausartzen esatera gure etxea noiz egongo den gu bueltatzeko moduan"

Ia aste bete ez da nahikoa izan Aranburuzabala kaleko bizilagunendako: "Sustoa ikaragarria izan zen, eta ezingo zaigu ahaztu", esaten du Nieves Zubiak, 26. atariko bizilagunetako batek. Zenbaki horretan izan dira kalte handienak, batez ere lehenengoan eta bigarrenean; Nieves Zubia bigarrenean bizi da. Nievesek ere ohikotzat zituen mendi goitik jausten ziren harrixkak, baina domeka goizekoak ohi baino handiagoak ziren: "Konturatu nintzen harriak jausten zebiltzala, zaratak entzun nituen eta leihora irten nintzen. Harriak barrura jausten hasi zitzaizkidanean, leihoa eta pertsiana itxi nituen. Bat-batean izugarrizko danbatekoa entzun nuen eta, beheko solairutik oihuak, zaratak, negarrak. Jaitsi egin nintzen ikustera zer gertatu zen, eta orduan ikusi nuen dena", kontatzen du.

Orain, Mendigoia hotelean dago: "Mantenu osora gaude. Hotelean egotea desberdina da; etxean norbera gure bizimodua, gure ardurak egitera ohituta gaude, eta hemen, lau horma artean, desberdina da. Baina jaso dugun arreta oso-oso ona da; bai hoteletan, bai Udalaren aldetik, denak guri begira ditugu, eta oso konforme gaude. Inguruko udalek ere laguntzeko eskaini dute euren burua".

**ETXEBIZITZA BERRIETARA**

Aranburuzabala kaleko lau familia kaltetuenen artean dago Nievesena. Hortaz, Udalaren eta Jaurlaritzaren lau etxebizitzetako batera bizi izatera joango dira; Udalaren asmoa da gaur, egubakoitza, egotea gertu etxeak. Hara ohitu beharko dira, izan ere, luzaroan etxebizitza horretan bizi izango dira: "Ez digute esan gure etxea noiz egongo den gu bueltatzeko moduan. Ez dira ausartzen hori esatera. Jendeak uste baino kalte handiagoa dago han. Luze joko du", esaten du Nieves Zubiak.


kaleko 26. zenbakiko lehen solairuan. MIRIAN BITERI

ESANAK

**"Bete-betean sartu zen lurra, eta paretak, armairuak... dena apurtu zuen, ia sabairaino"**
**Eufemiano Rodriguez** > Kaltetua

**"Eguenean irekitzeko moduan egon daitekeela esan didate, baina zalantzak dauzkat; ea Aratusteetarako..."**
**Juan Roque** > Txalapartako ugazaba

**"Luizia konpontzeko proiektu teknikoa hilabete barru egongo da; orduan jakingo ditugu xehetasunak"**
**Eskoriatzako Udala**

**"Hotelean egotea desberdina da; baina ondo gaude eta oso arreta ona jasotzen gabiltza Udalaren eta hotelaren aldetik"**
**Nieves Zubia** > Kaltetua


Kaltetutako etxeen atzealdea.


Kameralaria, malda goian.


Mendiak 1. solairuko leihoak estali zituen. ARGAZKIAK: MIRIAN BITERI

tea Markel Olano aldun nagusiarekin.

Udalak koordinatu ditu egunotako larrialdi eta garbiketa zerbitzuak. Gerorako geratu dira balorazio ekonomikoak eta gastuei zelan aurre egin.

**ARAMAION, ERREPIDEA ITXITA**

Aste bukaerako euri jasek lur-jausia eragin zuten ere, eta Aramaio eta Arrasate lotzen dituen errepide nagusian (A-2620), Suña-Bolueta eta Cuatrovientos arteko mendi maldako lurra jausi zen barrabarra. Asteon itxita egon da errepidea, eta Cuatrovientos baserria inkomunikatuta geratu da.

Abiadura Handiko Trenaren lanen eraginez mendia apurtuta dagoela eta lurrak mugitzen jarraitzen duela. Joan diren egunotan Suña, Untzilla, Zabola eta Azkoaga Aramaioko auzoetatik ibili da zirkulazioa, eta bide hori ez dago halako zama hartzeko moduan: zapatu iluntzetik eguazten eguerdira arte, gutxienez 15 istripu egon ziren. Auzotarrak ere kezkatuta daude, eta etzirako, domeka, elkarretaratzea deitu dute Azkoagako plazan, 13:00etan.

Udalak baztertu egin du zirkulazioa hortik bideratzen jarraitzea, eta lur-jausi parean, errekaz bestalde, errepide zati berri bat egiteko baimena eskatu dio Espainiako Sustapen Ministerioari. Azken hori ados agertu da, eta badirudi aurrera egingo duela asmo horrek. Udalaren arabera, 15 egunean eginda egongo litzateke errepide zati hori. Bitartean, eguenean galipota ipini zuten, eta bariku goizean ikustekoak ziren ea errail bat ireki zitekeen.

Lur-jausi arriskua zegoela esanda zegoen: besteak beste, Cuatrovientoseko baserritarrak salatu zuen Goienako medioetan. Aramaioko alkateak astelehenean salatu zuen abenduan, lur-mugimenduen berri izan zuenean Udalak, 112koekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta UTE AVE Mondragon enpresarekin egon zela Udala, eta azken horri eskatu ziola "egoeraren txostena eta aurreikuspenak eta 24 orduko zaintza jartzea", baina ez zela bete; ezta ere enpresa horri eta ADIFi Udalak eskatu zizkion neurriak: besteak beste, bide alternatiboa jar zezala.

LUR-JAUSIA ERREPIDEAN


Pitzadurak handitzen joan dira.


Lur-jausia Arrasate-Aramaio errepidean. JONE INUNTZIAGA

## Arrasate-Aramaio errepidearen errail bat zabaldu gura dute

Aramaio eta Arrasate lotzen dituen A-2620 errepidea noiz buelta daitekeen ez daki inork. Baina momentuko konponbideak bilatzen dihardu Aramaioko Udalak. Eguenean galipota bota zuten eta asmoa zen egubakoitz goizean ikustea ea errail bat gutxienez ireki zitekeen. Horrela, autoak auzoetatik bideratzea eta horrek sortu duen arriskua eta auzotarren egonezina saihestuko lirateke.

LABUR

## Elgetan lur-jausi txikia gertatu zen

Elgetan ere lur-jausia izan zuten astelehen goizean. Sesto baserrirako bidean gertatu zen, gune txiki baten. Bizilagunek diotenez, leku horretan ur filtrazioak daude goiko aldean babes ofizialeko etxebizitzen eraikin txikia egin zenetik. Errepidea ez zen moztuta geratu; "Justu-justuan", auto "txikia" pasatzen zen.

Ura bere bidetik ez doala ohartarazi dute bizilagunek. Alberto Olalde udal aparejadoreak dioenez, harri-lubeta bat ipiniko dute; asmoa da martxoan egitea lanok, eguraldi onarekin batera.

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**
**2010/2011**
**MATRIKULA LIBREA**
**Otsailaren 10etik martxoaren 2ra**

**HIZKUNTZAK:**
**ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA**

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**
Jardineta 3
20600 Eibar

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute *www.eoieuskadi.net* webgunean.
**Argibide gehiago:** *www.eoieibarheo.net* webgunean edo 943 20 06 18 telefonoan.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK OTSAILAREN 1etik 12ra

# zatoz ikastolara!

902 11 20 25
**informa zaitez**
www.arizmendi.eu




Ikastolen Elkartea

MONDRAGON
GIZATASUNA LANEAN
Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

Arizmendi
ikastola

**Asier Agirre** > Aramaioko alkatea

# "Alkateari egurra eman nahi diote, baina herriari ematen diote"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Otsailaren 10ean epaituko dute Aramaioko alkatea, "desobedientzia eta prebarikazioa" leporatuta. Hain zuzen, AHTren inguruko herri galdeketa egiteagatik epaituko dute Asier Agirre. Esan digu herriari galdetzea ez dela delitua eta berriro egingo lukeela.**

**Otsailaren 10a gertu dago. Nola zaude epaiketaren aurrean?**

Lehenik eta behin, esan behar da babes barik noala epaiketara; izan ere, abokatua ezin da epaiketan egon, Madrilen beste epaiketa bat daukalako. Guk atzerapena eskatu dugu, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso.

**Non kokatzen duzu zure kontrako epaiketa hau?**

Epaiketa hau *sorgin-ehiza* dela esango nuke. Hautetsi bat epaitzeak herriari galdetzeagatik ez dauka ez buru ezta hankarik ere. Nire aurkako akusazioa da herriari hitza ematea, non eta herrian egin behar den proiektu baten gainean iritzia eskatzeagatik. Proiektua izan daiteke AHT, edo beste edozer gauza.

**Esan izan duzu herria epaitu behar dutela alkatea epaitu beharrean.**

Bai, noski. Izan ere, herriak berak egin zuen galdeketa. Alkatea, azkenean, *cobaya* hutsa da. Alkateari egurra eman behar zaio, baina, azkenean, egurra herriak jasotzen du, herria delako obra guztiak pairatu behar dituena eta herria delako iritzi barik geratu dena. Aramaioko



Asier Agirre. GOIENKARIA

**"Arrazoia gu isilarazi eta galdeketa gehiagorik ez egitea da"**

**"Salagarria da herriko oposizioak izan duen jarrera"**

herriari inposatu zaion proiektu baten gainean iritzia ezin emanda geratu da herria.

**Epaiketa horretan bederatzi urteko inabilitazio zigorra eskatzen da. Zer duzu esateko?**

Eskariaren gainean ez daukat ezer esateko. Azken finean, epaiketa da garrantzia duena, zer eskatzen duten inporta ere ez zait egin. Zeren beldur gara gu? Gu ez gara ezeren beldur. Guk egin dugu lan bat, udal moduan, eta harro gaude lan horretaz. Gainera, Aramaioko herriak bere iritzia eman zuen.

**Galdeketak argi erakutsi zuen Aramaio AHTren kontra dagoela.**

Azken finean, Aramaion egin dena Euskal Herriko herri guztietan egin izan balitz, proiektu honen zilegitasuna bertan behera geratuko zen. Aukera eman dugun lekuan ikusi da zein izan den herriaren hitza. Parte hartu zutenen %97k ez dute nahi azpiegitura hau. Politikariek euren bulegoetan diseinatutako proiektua herriak ez du gura.

Hori da epaiketa honen arrazoia: gu isilaraztea eta modu horretan beste herrietan galdeketarik ez egitea. Baina neurriak jarri behar ditugu horrelako proiektuak lau politikariren esku ez geratzeko.

**Nola daude lanak?**

Argi ikusten da nola dauden lanak eta zelan doazen. Gura dutena egiten dute, eta momentu honetan Aramaio Arrasaterekin lotzen duen errepidea itxita dago, euren erruz.

**Nolako babesa jaso duzu epaiketa dela-eta?**

Esan behar da salagarria dela herriko oposizioko alderdiek izan duten jarrera. Gurekin egunero lanean dabiltzan hiru politikariei ez zaie inporta euren alkateak izan dezakeen inhabilitazio zigorra. Bestalde, zoriontzekoa da salaketa mozioa jaso duten udalerri guztietan onartu egin dutela nire aurkako epaiketaren mozioa.




Epaiketaren kontrako herri ekimeneko kideak, eguazteneko prentsaurrekoan. A.E.

## Alkatearen aldeko elkarretaratzea deitu dute otsailaren 9rako

Prozedura judiziala bertan behera uzteko eskatzeko eta Aramaioko alkate Asier Agirreri babesa erakusteko otsailaren 9an, epaiketa bezperan, 19:00etan herriko plazan elkarretaratzea egingo dute, epaiketaren kontrako herri ekimenak deituta. Modu horretan, herriak "bidegabekeria horri amaiera ematea" eskatu gura du. Gogoratu behar da herritarrek eurek antolatu zuten herri galdeketagatik epaituko dutela Agirre.

**TELEBISTA** > LTD

# GOITB dagoeneko digitalean ikusteko aukera dago 52. kanalean

Leintz bailaran bakarrik ikus daiteke digitalean; beste herrietan analogikoan ikusteko aukera dago oraindik

**A.E.** > BERGARA

GOITBk dagoeneko egin du digitalera salto. Hain zuzen, 52. kanalean ikus daiteke GOITB modu digitalean. Oraindik, baina, Leintz bailaran –Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga– bakarrik ikus daiteke digitalean. Gainontzeko herrietan analogikoan ikusteko modua dago oraindik. "Gure helburua ahalik eta azkarren bailara guztira seinale digitala hedatzea da; baina, hori egin bitartean, modu analogikoan ikusteko aukera egongo da", azaldu du Oihane Agirre Goiena Telebistako programazio zuzendariak. Horrek esan gura du oraindik ez dutela itzali seinale analogikoa.

Bestalde, esan behar da Euskaltelen bezeroek modu digitalean ikus dezaketela GOITB, eta ez dutela inolako egokitzapenik egin beharrik euren telebistan.

**HURRENGOA, BERGARA**

Muruko antena piztuta, Leintz bailaran ikusten dute GOITB modu digitalean; asmoa da hurrengo herria Bergara izatea. Ondoren, ahalik eta azkarren, gainontzeko herrietan egingo dute.

GOITB digitalean ikusteko 52. kanala sintonizatu behar da deskodetzailean. Arazorik izanez gero, egokiena teknikari bati deitzea da; izan ere, etxeko antenan egokitzapenak egin beharra egon daiteke.



Felix Etxagibel, txakolin botilarekin. GOIENKARIA

**AURKEZPENA** > ARDOA

# Otxia txakolina dastatzeko aukera domekan Arrasaten

Aurten, gainera, Getariako txakolinaren jatorri izena eramango du Otxiako txakolinak

**A.E.** > ARRASATE

Bedoñako Otxia baserriko Felix Etxagibelek domekan aurkeztuko du aurtengo txakolina. Arrasateko Kajoi tabernarekin elkarlanean, domekan 12:00etatik 14:00etara egingo dute aurkezpena Arrasateko Herriko Plazan.

"Aurtengo txakolina ona da, gustura geratu naiz egin dugunarekin. Hala, domekan, nire inpresioa jendearenarekin kontrastatzeko aukera izango dut", azaldu du Etxagibelek. 1988an hasi zen Etxagibel mahatsa sartzen. Ordutik, baina, jatorri izen barik ibili dira lanean, "legez kanpo". "Borroka asko egin ondoren, lortu dugu Getariako jatorri izena", dio Bedoñako txakolin ekoizleak.

**KANPOAN EGIN DUTE**

Aurten, lehenengoz, kanpora eraman dute txakolina egitera, Getariako upategi batera. "Hektarea bat daukagu landatuta; ekoizpen txikia da upategia jartzeko", dio Etxagibelek. Hektarea batekin 15.000 kilo mahats ateratzen dute; arazoak kontuan hartuta, urtean 6.000 litrotik gora egiten dute.

**POLITIKA** > AHALDUN NAGUSIA ARRASATEN

# Olanok dio elkarlanean jardunez indartuta aterako garela krisitik

Mondragon Unibertsitateak gonbidatuta, krisi ekonomikoaren "egoera eta aukerez" aritu zen

Debagoieneko kooperatibek krisitik ateratzeko duten elkartasun sena azpimarratu du

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

"Guztiz sinetsirik nago krisi honetatik indartuta aterako garela, gure esku diren bitarteko guztiak ari baikara jokoan jartzen, gipuzkoar guztien itxaropenak hobetzeko, oinarrian ditugularik elkarlana eta lankidetza". Mezu hori zabaldu nahi izan zuen Markel Olano diputatu nagusiak atzo, Arrasaten, MUko Goi Eskola Politeknikoaren areto nagusian eskaini zuen berbaldian.

Krisi ekonomikoaren "egoera eta aukerak" izan zituen aztergai. Hala, bizi dugun mundu mailako krisi larriaren kausak aztertu eta diagnostikoa egin zuen, eta krisitik ateratzeko eta beronen efektuak leuntzeko Foru Aldundiak abian jarri dituen neurriak ezagutzera eman zituen. Aspaldiko atzeraldi ekonomiko eta krisi orokorreko "garairik okerrena" gainditzeko, "guztion artean" saiatu behar dugula azpimarratu zuen.

Javier Sotil Mondragon Unibertsitateko presidenteak egin zuen aurkezpena eta ekitaldia jarraitu zuten Debagoieneko hainbat enpresaburuk, alderdi politikoetako zein hezkuntza alorreko ordezkarik eta bestelako pertsona ezagunek.

**DATU KEZKAGARRIAK**

Egoera modu gordinean azaltzeko, 2009an Gipuzkoako ekonomia zela joan den erakutsi zuen.

Aipatu zuen industria ekoizpenaren indizeak %20tik gora erori direla azken urtean; Gipuzkoako esportazioak %23,3 beheratu direla 2008ko datuekin alderatuta; enpresen inbertsioa ia %10 gutxitu dela, eta zerga bilketa %18 gutxiago izan dela. Egoera honek ekarri duela Gipuzkoan 12.000 lanpostu galtzea eta 18.000 langabetu gehiago izatea 2009an.

**ELKARLANAREN BALIOA**

Olanok adierazi zuen herrialde garatuetan hasi direla hobekuntzak igartzen eta Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenak direla aurten Barne Produktu Gordinak emaitza positiboak izatea, "puntu bat haziko" dela ekonomia. Halere, hobekuntza hori ez dela igarriko lanpostuetan eta "langabeziak gora" egin duela aurten ere.

Elkarlanean jardunez atzeraldia gaindituko dugula esan zuen eta Arrasateko kooperatiben mugimendua eredutzat hartu zuen, "enpresa-errealitate honen balioak, gure balio berak dira" esan zuen.



Javier Sotil, Markel Olano eta Josu Zabala, MUko Goi Eskola Politeknikoaren sarreran, atzo. ARANTZAZU EZKIBEL

BALIOEN GARRANTZIA

## Lana, sakrifizioa, eta konpromisoa

Atzeralditik ateratzeko bidea "zaila eta luzea" izango dela esan zuen, eta egoera berria erabat "ezberdina", lehiakide "gehiagorekin, hobeagoekin" eta kasu askotan "merkeagoekin"; hala, egoera berrietara egokitzeko, "malguak" izan beharko garela esan zuen.

Enpresek lehiakortasun indizeak berreskuratu eta handitu nahi badituzte, produktibitatea handitu, berritzaileagoak izan eta gehiago nazioartekotu beharko direla esan zuen. Lana, ahalegina, sakrifizioa, konpromisoa, zorroztasuna, aurrezpena edota elkarlana bezalako balioak indartu beharraz oharatarazi zuen.

DIPUTAZIOAREN PLANA

## Enpresa-egitura lehiakorrak

Krisitik ateratzeko enpresa-egitura "indartsu, lehiakor eta berritzaileak" beharrezkoak direla azpimarratu zuen. Eta, krisiari aurre egiteko, aurten plan berezia kudeatuko duela Diputazioak, "10 milioi euroko aurrekontua duena". Planaren lehen helburua da Gipuzkoan enpleguari eustea, Foru Aldundiaren inbertsio publikoak "indartuz azpiegituretan", eta "jarduerari eutsiz eraikuntzan eta osagarrien sektorean". Behar bereziak dituzten pertsona nahiz taldeei laguntzeko programa bereziak zabalduko dituztela ere esan zuen eta baita enpresen egitura sendotzeko laguntzak ere.

EGOERA BERRIA

## Erantzukizun soziala eta etika beharra

Etorkizunera begira, nabarmendu zuen lurraldearen lehiakortasuna ikuspegi globalez hartzearen beharra, administrazio publikoaren kudeaketa arinduz eta burokrazia laburtuz. Bestalde, adierazi zuen "arinago eta zehatzago" egokitu behar dugula ikerketa aplikatua eta oinarrizkoa enpresen eta merkatuaren beharretara. Hirugarrenez, funtsezkoa dela, enpresen lehiakortasuna sustatzea.

Azkenik, ezinbestekoa dela garrantzia ematea pertsonen balioei: "Etika, ahalegina, lana eta erantzukizun soziala bezalako baloreak goraipatu eta berretsi behar ditugu", esan zuen.

EREDUGARRI

## Kooperatiben "elkartasun sena"

Berbaldia amaitzeko, azpimarratu nahi izan zuen gure ibarrean, Arrasaten zehazki, egiten den lana, "Gipuzkoaren eta Euskadiren garapen ekonomikoaren alde". Hala, eredu moduan ipini zituen kooperatibak, "enpresa-errealitate honen balioak, gure balio berak dira".

Esan zuen ekonomia sozialaren alorrean, munduan erreferentzia nagusi garela, azken 50 urteotan Mondragoeko kooperatibetako pertsona eta enpresek egindako lanagatik. Eta, azpimarratu zuen krisiak kooperatibetan gogor jo duela, baina baita krisitik ateratzeko kooperatibek daukaten "elkartasun sena".

**LANGABEZIA**

## 118 langabe gehiagorekin hasi dugu urtea

Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera langabezia tasa %11,09 da

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Urtarrilean langabeziak gora egin du berriro ere Debagoienean. Horixe da Enplegu Zerbitzu Publikoak (lehengo INEM) emandako datuek erakusten dutena. Urtarrilaren 31n ibarreko biztanleria aktiboaren %11,09 langabezian zegoen. Guztira, 3.437 pertsona. Bigarren irakurketa da 2009ko abenduko datuekin eta batez ere iazko urtarrileko datuekin alderatuta, langabezia askotxo igo dela Debagoienean. 2009ko abenduko langabezia tasa %10,71 zen eta 2009 urtarrilekoa %10,03. Dena den, langabeziaren igoera orokorra izan da Euskal Herrian: %5,8 abenduarekin alderatuta.

**IBARREAN GORA**

Urtarrileko datuak herrika hartuta (ikus beheko taula), Debagoieneko guztietan langabe gehiago daudela ikusten da, Elgetan (bost gutxiago) eta Leintz Gatzagan (hiru gutxiago) izan ezik. Oñati da igoera nabarmenena izan duena: urtarrilean 474 langabe zeuden, abenduan baino 51 gehiago. Arrasaten 33 langabe gehiago zeuden, Bergaran 29 eta Aretxabaletan 10.

**IAZ BAINO GEHIAGO**

Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako datuen arabera, 135.687 langabe zeuden Euskal Herrian urtarrilean, iazko urtarrilean baino 25.594 gehiago. Goranzko joera bera izan du langabeziak Debagoienean. Hamabi hilabetetan igoera nabarmenenak Arrasatek (iaz 1.325 zeuden eta aurten 1.477) eta Bergarak (iaz 633 eta aurten 751) izan dute. Aldiz, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan 2009ko urtarrilean baino langabe gutxiago daude.

### Lanbezia tasa herrika

| HERRIA | LANGABEAK | TASA |
|---|---|---|
| **Antzuola** | 103 | %11,32 |
| **Aretxabaleta** | 363 | %11,25 |
| **Arrasate** | 1.477 | %12,76 |
| **Bergara** | 751 | %10,47 |
| **Elgeta** | 30 | %6,10 |
| **Eskoriatza** | 229 | %11,01 |
| **Leintz Gatzaga** | 10 | %7,52 |
| **Oñati** | 474 | %8,77 |
| **GUZTIRA** | **3.437** | **%11,09** |

Iturria: Enplegu zerbitzu publikoa





**Haur eta Lehen Hezkuntza**
**DBH - Bigarren Hezkuntza**

**MATRIKULAZIOA**
**Otsailaren 1etik 12ra**

**goieskola**
debagoieneko euskal eskola publikoa

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

### Eskoriatza/Gatzaga
**Luis Ezeiza Eskola**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 8, 18:00
Tel.: 943 71 49 38

### Aretxabaleta
**Kurtzebarri Eskola**
Bilera: Urtarrilak 27
Euskaraz: 18:00
Gazteleraz: 19:00
Tel.: 943 79 00 49

### Arrasate
**Arrasate Herri Eskola**
Bilera:
Bedoñaben Otsailak 1, 18:00
Musakolan Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 20 69

### Aramaio
**San Martin Eskola**
Bilera: Otsailak 1, 17:30
Ate irekiak: 19:30ak arte
Tel.: 945 44 50 04

### Bergara
**San Martin Agirre Eskola**
Bilera: Otsailak 2, 18:30
Ate irekiak:
Otsailak 6, 16:30-19:30
Tel.: 943 76 21 47

### Antzuola
**Antzuolako Herri Eskola**
Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 62 68

### Elgeta
**Elgetako Herri Eskola**
Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 82 26

### Oñati
**Errekalde Herri Eskola**
Ate irekiak:
Urtarrilak 30, 17:00-19:30
Tel.: 943 78 07 64

## BIGARREN HEZKUNTZA

### Arrasate
**Arrasate Institutua**
Bilera:
Musakolako eraikuntzan
Otsailak 2, 18:00
Aramaio San Martin Eskolan
Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 44 47
Tel.: 943 79 20 38

### Aretxabaleta
**Kurtzebarri BHI**
Bilera: Otsailak 2, 18:00
Tel.: 943 79 57 40

### Bergara
**Ipintza Institutua**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 3, 18:30
Tel.: 943 76 31 42

### Oñati
**Zuazola Larraña Oñatiko BHI**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 9, 18:00
Tel.: 943 78 12 68

**guztiona, guztion artean**

goieskola@euskalnet.net
www.goieskola.net
605 773 992

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**euskal eskola publikoa**

Gipuzkoako landa inguruneaz jardun dugu Rafa Uribarren diputatuarekin: baserritarrez, abeltzainez, okelaz, hiltegiez... Uribarrenek dio aurtengo txakolin uzta ona izan dela, baina ez iazkoa bestekoa, eta sagar uzta ere txikiagoa, iazkoarekin alderatuta, baina sagardo ona atera dela. Bestalde, baserritarren eta haien jardunaren beharraz ohartarazi du diputatuak.

**Rafa Uribarren** > Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua

# "Baserritarrak bere jardunean egoteko bertako produktuak erosi behar dira"

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**Rafa Uribarren arrasatearra (Anoetan bizi da) da Gipuzkoako Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua. Zinegotzia ere bada Arrasaten, baina oraingoan lehen sektoreaz egin digu berba.**



Rafa Uribarren martitzenean, Arrasaten, Goienaren egoitzan. ENEKO AZKARATE

**Zelakoa atera da aurtengo Getariako txakolina?**

Uzta ona izan da, baina ez iazkoa besteko ona. Kantitate aldetik, iaz baino gutxiago atera da, 1.800.000 botila inguru, baina kalitate onekoa. Urte normal baten 2.000.000 edo 2.200.000 botila kaleratzen dira.

**Jatorri izena lurralde osora zabaldu duzue.**

Txakolina oso ondo saltzen da eta hori seinale ona da. Ematen du badagoela merkatu bat oraindik ase barik dagoena. Horren haritik, azken urteotan bi erabaki hartu ditugu: batetik, Aia, Zarautz eta Getariaz gain, lurralde osora zabaltzea Getariako txakolinaren jatorri izena; bestetik, hektarea kopurua zabaltzea. Orain dela hiru urte 227 hektarea ziren eta une honetan 400 hektarea pasa dauzkagu. Txakolin produktore berriak, Debagoienekoak tartean, txakolinak merkaturatzen hasten direnean ikusiko dugu merkatua ondo aseta dagoen edo gehiago behar den. Badago kezka apur bat ere ikusteko pasa egin garen edo ez.

**Sagardo denboraldia ere hasi berri da. Zelakoa izan da aurtengoa, kalitate eta kantitate aldetik?**

Aurten sagar gutxi izan dugu. Horregatik, kanpoan erosi behar izan dute sagarra, baina sagar ona erosi dute eta sagardoa ere ona atera da.

**Sagardoaren harira, plan estrategikoa egiten zabiltzate sektoreko eragileekin, ezta?**

Hala da. Helburua da hemendik urte batzuetara bertako sagarrarekin bakarrik egitea hemengo sagardo guztia. Hala, batetik, landaketak bultzatu beharko ditugu; bestetik, produkzioa hobetu, ongarriak, inausketak-eta hobetuz, eta sagardotegiak ere konprometituko dira ekoizpen osoa erosteko. Gurako genuke kalitatezko zigilua sortu.

**Zein da gaur egun Gipuzkoako baserritarrek, abeltzainek... dituzten gabezia nagusiak?**

Aspaldi ezagutu ez dugun moduko egoera txarrean gabiltza, bai esne sektorean eta baita okelarenean ere. Azken urteotan esnearen prezioa %23 jaitsi da eta une honetan ekoizten denak ez du estaltzen gastatutakoa. Baserritarrak, halere, eutsi egiten dio egoera horri, baina ezin du luze iraun horrela. Neurriak hartuko ditugu egoera hobetzeko.

**Eta okelarena?**

Urtetik urtera egoera okertzen doa eta une honetan irabaziak oso txikiak dira: ia-ia laguntzetatik jasotzen dituztenak. Bultzada eman behar diogu sektoreari, ze, bestela, gure nekazaritza oso larri ibiliko da-eta datozen urteotan. Jakin behar dugu hemen bertan ekoizten den okela dela %20 bakarrik, eta, gainera, hori merkaturatzea asko kostatzen zaigu. Kanpotik datozen enpresek sartzen dute euren okela eta gurea baztertuta geratzen da. Bertako okela indartu behar dugu eta kanpotik badator ez dadila izan gure laguntzarekin.

BERTAKO SAGARDOA

**"Helburua da hemendik urte batzuetara bertako sagarrarekin bakarrik egitea sagardo guztia"**

HARAGIA

**"Bertako okela indartu behar dugu eta kanpotik badator ez dadila izan gure laguntzarekin"**

AHT-REN KALTEAK

**"Lur bankuaren bidez, kalteak neurri baten saihestearren, lur berriak merkatuan jarri gura ditugu"**

**Eskualdez eskualdeko hiltegien alde zaude?**

Une honetan lau hiltegi daude Gipuzkoan, eta hiltegien arteko elkarlana beharrezkoa da. Eta uste dugu kudeaketa modu onena, seguruen, publikoa eta pribatua batzen dituena dela.

**Abiadura Handiko Trenak landa ingurunean kalte askotxo eragingo ditu. Zer egin dezake Diputazioak kalte horren eragina ahalik eta txikiena izan dadin?**

Gipuzkoan 200 hektarea ingururi eragiten die. 200 hektarea horietatik gehienak lursail maldatsuenetan daude. Badaude lursail onak ere, hori egia da, baina gehienak ez dira. Jaurlaritzari egin genion eskaintza gure lur bankuaren bidez, kalteak neurri batean saihestearren eta lur berriak merkatuan jartzeko. Nahiko genuke hitzarmena sinatu Jaurlaritzarekin arazoa neurri baten leuntzeko.

**2030eko Gipuzkoa zelakoa izan nahi den aztertzen dihardu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskualdeen arteko orekaren garrantzia azpimarratu izan duzu zuk, ezta?**

Gaur egun ikusten dugu joera dagoela joateko Gipuzkoako barrualdetik kostalde edo hiriburrurantz. Hori geldiarazi egin gura dugu, lurraldea orekatzeko. Bost bailara sakon ditugu eta baita bailarako herriburuak ere, eta herriburu horien ondoan herri txikiagoak. Hori da egitura egokiena gure orografia malkartsuarendako, eta oreka horri eutsi gura diogu etorkizunean ere.

**Eta horretarako zer?**

Lurraldeko herrietako bizikalitatea hobetu egin behar da. Bestalde, landa ingurunearen ikuspegitik, gure ondasunak direnak, horrenbeste estimatzen ditugunak, natura, paisaia, biodibertsitatea, horiek zaindu behar ditugu: gure lau parke naturalak, hiru biotopoak eta interes handiko 19 lekuak. Horrek guztiak osatzen du mapa bat eta mapa hori mantentzeko, baserritarra eta haren jarduera behar-beharrezkoak dira. Baserritarrak euren betiko lanean edukitzea ezinbestekoa da, eta horretarako, jendarteak egin behar du baserritarren lana eskertu, produktuak erosi, baserritarrak harro egon daitezen euren lanarekin. Horretarako behar dugu katea laburra izatea: eroslearen eta produktoreen arteko harremana estua izatea.

**Mendiko ibilbideen sarea eratzeko asmoa dauka Diputazioak, ezta?**

Bai, gure ibilbideen sarea egin behar dugu, ezaugarri bereziekin, ondo zainduta eta ondo identifikatuta. Itsasertzeko bidea abandonatuta dago,eta hori berreskuratzen gabiltza, txukuntzen, hondarra ondo ipintzen, bidea zabaltzen, seinaleak jartzen, zubitxoak ipintzen… Pasai Donibaneraino iritsi gara eta gura dugu Bizkairaino ailegatu. Kostaldekoa eta barrukoa lotu nahi dugu, baita Aralar eta Aizkorri-Aratz parke naturalak; San Adrianetik Aizkorrirainoko bidea eginda dago… Lauzpabost urteetan ibilbide guztiak prest izan gura ditugu.



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Añota

Elosiaga auzoa, 434 Urraki errepidea
AZPEITIA
943 81 20 92

- Urte osoa zabalik (oporrak Gabonetan)
- Bazkari eta afariak egunero
- 250 lagunentzako lekua
- Berezitasunak: zezina tortilla eta zezina arrautzeztatua
- Sagardo botilen salmenta
- **“Tolare” sagardotegia**




## Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL / 943 36 66 63
*www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com*

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA / 943 65 28 37
*s.begiristain@terra.es*
*www.begiristainsagardotegia.com*

- Urtarriletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketarako (607 36 57 43).
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak astelehenetik zapatura, bazkariak eguenetik zapatura.
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
*www.iparragirre.com*

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez
- Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadis” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria ASTIGARRAGA
943 55 27 20
*rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com*

- Astigarraga erdigunetik 100 m-ra..
- Urte osoan txotxetik zabalik
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Unzueta

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta
- 70 lagunendako tokia
- Parking eta terraza



**zabalik**

Estepan Plazaola

# D bitamina

D *bitamina. Aberastu bere heziketa!* izenburuarekin kanpaina antolatu dute Bizkaiko 45 udalek. Tartean dira Bilbo edo Sestao ere, PSE-EEko alkatea duena, azken hori. Azkeneko urteetan ez, baina hainbat urtetan gure herrietan ere egin izan da D eredua bultzatzeko kanpaina. Azkeneko 7-8 urteetan D ereduan dabiltza Derrigorrezko Hezkuntzako Bergarako ikasle guztiak. Horri esker, 22-25 urtez azpiko ia bergarar guztiek dakite euskaraz.

Eusko Jaurlaritzak, ordea, gurasoei galdetuko die beren semealabek zein eredutan ikastea nahi duten. Norbaitek plantea dezake: *ez dago gaizki herritarrei galdetzea eurek zer nahi duten.* Ez nago ados.

Gobernuak berak badaki A ereduak ez duela euskalduntzen. Herritarren gehiengo zabalak ere onartua du hori. Zer dela eta orain gai horren inguruan zalantza plazaratu?

> **"Gaur gaurkoz, D ereduak askoz gehiago ematen du prezio berean"**

Zergatik da eskola curriculumeko gai guztien artean euskararena zalantzan jartzen den bakarra? Nola onar dezake gure gizarteak euskaldunduko ez duen hezkuntza sistema bat? Beste hainbat arrazoigatik ere bai, baina ekonomia hutsagatik ere ez ote da zentzugabea? Ala jarraitu beharko ote dugu gaur eskolak euskaldunduko ez dituen ume horiek erizain, ertzain, ETBko zuzendari edo lehendakari bihurtzen direnean euskalduntzen eta horretarako diru pila bat gastatzen? Gaur gaurkoz, D ereduak askoz gehiago ematen du prezio berean.

Donostiako Udaleko webgunean dioen bezala, *gero eta guraso gehiagok hartzen dute D ereduaren aldeko erabakia, bere semealaben onerako baita. Haurrek beti eskertuko diete euskara erakutsi izana.*

Etorkizunean gizarte osasuntsuago, kohesionatu eta justuago bat izateko, D bitamina.

**usteak uste**

Jokin Bereziartua

# 'Pikea', herri koloretsuena izateko

Debagoienean Aretxabaletako Aratusteak izan dira ospetsuenak. Azken urteetan, baina, *agintea* kolokan ikusi dute; Arrasaten sortu zaie *arerioa*. Izan ere, festa zapatura pasa eta herri bazkarian 700 lagun elkartzera heldu dira zerrajeroak. Aurten arazoa errotik konpondu gura dute aretxabaletarrek, eta horretarako Chuck Norris beldurgarria gonbidatu dute. *Youtube*-n dago ikusgai hori frogatzen duen bideoa. Arrasatera Eñaut Heriz –*Inauteri*– etorri zen iaz; bada, aurten Steven Seagal etorri beharko da, Texasko Walkerrak arerio duina izan dezan...

**gutunak**

## Gauza bat esan; beste bat egin

**Pedro Sologaiztoa, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana**
(Oñatiko LAB Helduak)
Oñati

Zertifikatutako kartak bidali ditu Oñatiko Udalak ezintasunen bat duten herritarren etxeetara eta jende asko etorri zaigu haserretuta, ezarri zaizkien elbarritasun baldintza berriak konpentsaziorik gabe utzi dituztelako.

Gaur arte, pertsona batek bere elbarritasuna %33koa edo gehiago baldin bazuen, bere ibilgailuaren Udal zerga ordaintzetik libre geratzen zen 14/1989 Foru Arauan jasotzen denez. Baina orain dirua nonbaitetik atera behar dela-eta ze bururatu zaie PNV eta Hamaikabateko jauntxo politikoei, ba, beste 4/2009 deritzan Foru Araua atera dute eta elbarritasun maila kalifikatzeko prozeduran baremo zorrotzena aplikatu dute, eta maila horretara ailegatzen ez dena nahiz eta elbarritasuna bere gorputzean eraman, ibilgailuaren zerga ordaintzera behartzen dute 2010etik aurrera.

Gipuzkoan eta Oñatin PNV eta Hamaikabatek biak bat eginda agintzen dute eta mila aldiz entzun diegu Markel Olano diputatu nagusiari, Iñaki Galdos diputatuari eta, zer esanik ez, Lurdes Idoiaga alkateari esaten gizarte zerbitzuei eta gastu sozialari lehentasuna emango zaiela eta gizarte prestazioak mantendu egingo dituztela. Gezurra!

Lehen elbarritasunagatik prestazioa zuten pertsonak orain elbarritasun berarengatik ezer gabe geratzen dira Markel Olano, Lurdes Idoiaga eta enparauen kulpagatik.

LAB Helduak taldekook bat egiten dugu neurri honek kaltetu dituen herritarrekin eta berriz ere etor litezkeen gizarte prestazio mozketen aurrean salaketa egitea beharrezkoa dela uste dugunez, ez gara isilik geratuko.

## Alkateari epaiketarik ez!

**Juan Jose Peciña**
(Epaiketaren kontrako herri ekimena)
Aramaio

Aramaioko alkateak 9 urtez gaitasunik barik uzteko zigor eskaera bati aurre egin behar dio herritarren iritziari bide ematearen akusaziopean. Horrela laburbildu dezakegu Arabako Audientzia Probintzialeko fiskalak, Estatu Abokaturen laguntzaz, bultzaturiko epaiketa.

Noraino iritsi behar gara?

2006ko azaroan, Aramaioko 685 herritarrek eta hainbat auzo alkate, elkarte zein udalerriko kirol, kultur eta jendarte taldek Abiadura Handiko Trenaren gaineko iritzia galdetzea eskatu zioten Udalari.

Udalean aho batez onartu zen Herri Kontsulta egitea, baina Estatu Abokatuak bultzatuta Arabako Audientzia Probintzialak Herri Kontsulta debekatu zuen berau egitea ezinezko bilakatuz.

2007ko Udal hauteskundeen ostean herritarrek beraiek antolatu zuten herriaren iritzia ezagutzeko prozedura eta elkarte zein talde ezberdinen parte hartzeaz auzoz auzo garatu zen 2007ko irailaren 28 eta 30 bitarte.

Estatu Abokatuak berriro jo zuen galdeketatzat hartu zuenaren kontra, epaileak berriro debekatu zuen, baina herriaren aurka ezin zutenez egin herritarren ordezkarien aurka egin zuten, alkatearen aurka.

Honela, udaletxearen ateak irekitzeagatik 9 urtez gaitasunik barik uztea eta herritarren iritziari bide emateagatik epaitu nahi dute Aramaioko herritarron gehiengoak aukeraturiko udal ordezkaria. Argigarria oso. Herriari hitz emateagatik zigorra eskatzea udalen autonomiaren aurkako eraso larria da, udalen autonomia kolokan jartzen du eta hori ezin da onartu.

Honen guztiaren aurrean, herriko eragile, kultur talde, norbanako eta alderdiei dei egiten diegu otsailaren 10ean burutuko den epaiketaren aurrean, eta berau salatzeko izango diren ekimenetan parte hartu eta bidegabeki abian jarri den prozedura judizial honen aurrean tinko erantzun eta alkateri beharrezkoa duen babesa ematera. Herritarren iritzia jakin nahi izatea ezin dela delitu izan aldarrikatu nahi dugu, are gehiago, herriari hitza ematea herritarren ordezkarien betebehar eta demokrazian sakontzeko ariketa bezala ulertzen dugu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAko albiste batean informazio okerra eman genuen; hain justu ere, Aramaioko alkatearen kontra zabaldutako prozeduraren harira, Bergarako udalbatzak onartutako mozioari dagokiona. Albistean jarri genuen PSE-EE abstenitu egin zela. Hori ez da zuzena. Kontra bozkatu zuten. Barkamenak eskatu nahi dizkiegu irakurleei eta, bereziki, PSE-EEko zinegotziei.

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Oñati** > 20-21 **Aretxabaleta** > 22-23
**Eskoriatza** > 24 **Antzuola** > 25 **Elgeta** > 26 **Aramaio** > 27 **Gatzaga** > 27



**> BERGARA**
Zapore eta artisau lanen azoka dago San Martin plazan domekara arte **> 16**



**> OÑATI**
Errekalde herri eskolako berritze obrak egunotan hasiko dira **> 20**



**> ARETXABALETA**
Txapel Txin eguna ospatuko dute bihar, torrada lehiaketarekin **> 22**



**> LEINTZ GATZAGA**
Semaforoak ipini dituzte herriko sarreretan, hilabeterako **> 27**

**ARETXABALETA** > LANAK

# Lanbide Heziketako ikasleak ari dira Maria Wörth plazako lurra berritzen

**PUTZUAK**
Zoladuran egindako putzuak daude egunotan konpontzen

**LANGABEAK** Ikastaro horretako ikasleak 25 urtetik gora dituzten langabeak dira

**HILABETE INGURU**
Udalaren aurreikuspenen arabera, hilabete emango dute lanean



**HIRU LANGILE** Antonio Torres (aurrekoa), Jonathan Martin eta Mariano Alonso lanean ari dira joan den astea ezkero Maria Wörth plazan. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Maria Wörth plaza berritzen ari dira egunotan. Monitore baten laguntzarekin, Debagoieneko Mankomunitateko Lanbide Eskolako hiru ikasle ari dira joan den astea ezkero ingurune horretan lanean, denborarekin lurzoruan egin diren zuloak konpontzen.

Hain justu, Antonio Torres, Jonathan Martin eta Mariano Alonso daude han. Azaldu digute astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten dutela lan, 10:30etik 15:30era. Torresen esanetan: "Hona etorri aurretik, bi orduko eskola daukagu, denetarik jorratzen dugu han; esaterako, matematika. Jarraian, lanera ekartzen gaituzte. Gure taldeaz gain, Leintz Gatzagan beste bat dago eta Arrasaten beste bat, Epele inguruan".

**POZIK LANAREKIN**

Diote gustura daudela kalean lanean, eguraldi txarrarekin "gogorra" dela gaineratu badute ere. Martinen arabera: "Ondo datorkigu horrelako lanak egitea. Orain arte tailerrean egon gara igeltserotza eta arotzeria ikasten. Kalean praktikatzea, dena dela, ondo datorkigu, esperientzia hartzen joan gaitezen eta lanbideak ikas ditzagun". Horren harira, gogorarazi digute Lanbide Eskolan daudenak 25 urtetik gora dituzten langabeak direla. Horrekin batera, azaldu digute orain jasotzen diharduten ikastaroak urrira arte iraungo duela eta data hori iritsi bitartean beste hainbat lan egitea aurreikusita dutela. Torresen esanetan, "Oñatira, Zubillaga aldera ere joateko asmoa omen dago".

**HILABETE ARETXABALETAN**

Udalaren aurreikuspenen arabera, hilabete inguru emango dute zeregin horretan. Dena dela, Aretxabaletako Hirigintza arduradun Jose Mari Segoviak esan digu epe hori aldatu egin daitekeela eguraldiaren arabera: "Kanpoan egiten diren obrak direnez, klimatologiak baldintzatzen ditu. Euri asko egiten duenean ezin dute ezer egin". Horrekin batera azaldu digu Udalak materiala jartzen duela eta Mankomunitateak, berriz, langileak.

Bestalde, egiten ari diren lanez ere egin du berba Segoviak. Gogorarazi du Maria Wörth plaza urbanizatu zenean, Errekabarren 1. eta 3. zenbakiak izango zirenen eraikinak egin zirenean, zoladura malgu moduan ezagutzen dena jarri zutela lurzoruan; hain justu ere, galtzada-harriak harearen gainean jarrita. Denborarekin inguruko eraikinetan berritzeko lanak egin behar izan direla eta ibilgailu astunen joanetorria dela-eta zoladura deformatu egin dela eta horren ondorioz putzuak egin direla aipatu du Hirigintza arduradunak.

**ESALDIAK**

**"Orain arte tailerrean igeltserotza eta arotzeria ikasi dugu; kalean praktikatzea ondo datorkigu, esperientzia hartzeko"**
**Jonathan Martin** > Langilea

**"Aretxabaletako taldeaz gainera, Leintz Gatzagan beste bat dago eta Arrasaten, Epele inguruan, beste bat"**
**Antonio Torres** > Langilea

**IZENAREN JATORRIA**

Maria Wörth plaza Errekabarren 1. eta 3. zenbakietako atzealdean dago. Izen berezi hori Aretxabaleta eta Austriako hegoaldean dagoen izen bereko herri txikitxoaren arteko senidetzetik dator. Aitor Antxia alkate ohiak gogorarazi duenez, 1990ean sortu zen hori, orduko alkate Pedro Mendieta eta Europako erdialdean Fagorko ordezkari zen Kart Bürstaller ezagunen eskutik.

Senidetze horren bidez, batetik, batak bestearengandik ikasi, elkarri lagundu eta bi herrietako bizilagunak harremanetan jarri nahi ziren; eta bestetik, turismoa bultzatzea eta ikasleek alemania ikas zezatela ere bilatzen zen. 1995a ezkero, senidetze horren gaineko pauso berririk eman ez bada ere, plazak izen hori izaten jarraitzen du.

**EKONOMIA** > 2010EKO UDAL AURREKONTUA

# Inbertsioak erdira jaistea aurreikusi du Gobernuak

Inbertsiorik handiena Helduen Heziketa Iraunkorra lekualdatzeko erabili gura du, oraingo egoitza txikiegi geratu zaielako ikasle-irakasleei



Helduen Heziketa Iraunkorrekoendako leku handiagoa gura du Gobernuak. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Iaz moduan, aurten ere asko igarriko da krisia Arrasateko aurrekontuan. Udal Gobernuak kalkulatu duenez, aurtengoa %14,35 txikiagoa izango da, 2009koarekin alderatuta.

Kopurutan, 37.383.637 euro da Gobernuak udal beharretarako kalkulatu duena: 34 milioi euro pasa Udalarendako; hiru milioi euro pasa Iturbiderendako; eta 1.700.000 euro pasa kirol kontuetarako (AUKEA). Hiru erakundeotatik, Iturbide da aurrekontu igoera duen bakarra.

**INBERTSIO NAGUSIAK**

Jaitsieraren eraginez, inbertsioak ere asko jaitsi beharko dira: %51; iazko 14,4 milioietatik, 7,04ra, "Udalak erabilgarri dituen diru baliabideei egokitu behar zaizkielako", azalpenaren arabera.

Inbertsioen artean, nabarmenena da 872.000 euro hezkuntzarako izango dela, eta hortik zatirik handiena Helduendako Heziketa Orokorrarendako lokal berria egokitzeko.

Beste 700.000 euro kalkulatu dituzte, berriz, Abaroa berriaren obretarako (Etxaluze).

Bestalde, erdigunean Gazteen Topagunea abiarazi gura du Udalak: 415.000 euro.

Horrez gainera, Gizarte Zerbitzuak lekualdatu egin gura dituzte. Udaletxean duten lekua txikiegi geratu zaie, eta Zerrajerako etxeetako behe-barruetara eraman gura dituzte. Horretarako, beste 400.000 euro inbertitu beharko dituzte.

DATUA

**%15**

**GUTXIAGO**

2009ko aurrekontuarekin alderatuta, %14,35 jaitsiko litzateke aurtengoa. Hori bai, Iturbiderena %7,55 handituko da.

Beste adibide bat ipintzearren, milioi bat euroko poltsa gorde dute, litekeena delako Espainiako E Planaren antzerako zerbait etortzea Jaurlaritzatik. Hala, balizko proiektu horiek finantzatzeko aukera izateko gorde dute poltsa hori

**ZORRA, IA BIKOIZTUTA**

Dena den, Arrasateko Udalak 2010ean eta datozen urteotan izango duen gasturik handienetakoa zorra izango da: 12.761.027 euro. Bikoiztu egin da iazkoarekin alderatuta (6.515.764 euro, 2009an).

Baina zorra handia izan arren, "Udalaren diru-sarreren erdia baino gutxiago da daukan zor hori; hortaz, bikoiztu egin den arren, badirudi marjina badagoela,onargarria dela", azpimarratu dute Udal Kontu-hartzailetza Sailetik.

Horrez gain, ez da aurrenengo aldia Arrasateko Udalak halako zor handia duena. 1994tik 1997ra bitartean horrenbestekoa edo handiagoa izan zuen, adibidez, Uarkapeko arazoari aurre egiteko beharrak eraginda.

Azkenik, zor horretatik hiru milioi euro pasa Diputazioari zor dizkio. Eta erabaki dute kopurua bat-batean itzuli beharrean, 2011-2013 bitarteko epean bueltatzea; interes barik, gainera.

**OSOKOA FALTAN**

Esandako guztia aplikatzeko, baina, osokoaren onespena behar du Udal Gobernuak; atzo (eguena) landu zuten gaia, baina artikulua idaztean bukatu barik zegoen.

OPOSIZIOKO ALDERDI POLITIKOEN IRITZIAK

**Aritz Arrieta**
PSE-EE

### "Gobernu honek ez du iniziatibarik"

"Kontra gaude, bi arrazoirengatik. Bata da ETAko senideek jasotzen duten laguntza Gizarte Zerbitzuetatik pasatu barik banatzen dutela, zuzenean, eta, beraz, ez da solidarioa beste laguntza eskaera batzuekiko. Bestea da kudeaketa ereduarekin ez gaudela ados; izan ere, krisia ezin daiteke arrazoi izan iniziatibarik ez izateko; eta Gobernu honek aurretik zetozen proiektuak landu besterik ez du egin.

**Luis Mari Apraitz**
EAJ-PNV

### "Defizitak zor handiak eragin ditzake"

"Gure alderditik ikusten duguna da zor handiak daudela. Batetik, defizit handia dago Udalean. Eta bestetik, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari hiru milioi euro bueltatu behar dizkio oraindik. Hori horrela, eta kopuru horiek ez badira murrizten, zorpetze oso handia gertatuko da eta horrek ekarriko duena da hurrengo urteetarako aurrekontuak oso konplikatuak izatea".

**Joseba Ugalde**
Alternatiba-Zutik

### "Egoitzako langileen egoera ezin da ahaztu"

Alternatiba-Zutik koalizioak babesa emango die aurrekontuei baldin eta Iturbideko langileen lan-baldintzak hobetzeko proposamena aintzat hartzen badu Gobernuak. "Ezin dugu ahaztu zuzeneko eta zeharkako langileen arteko desberdintasunak sekulakoak direla". Bestalde, etxez etxeko laguntza zerbitzua handitzeko eta, adibidez, garraio publikoa indartzeko ere proposatu du.

**Itziar Lamarain**
PP

### "Ez nago ados presoen senideen laguntzekin"

"Egia da aurrekontua txikitzeko ahalegin handia egin dutela, Udalak ezin duelako besterik egin. Hala ere, nik emendakin batzuk aurkeztu nituen, batzuen zati bat onartu zuten, baina guztiak ez. Horrez gainera, aurrekontuetan dagoen partida batekin ni sekula ez naiz ados egongo: presoen senideei laguntzeko dirupartida. Hori dagoen bitartean, nik ez dut aurrekonturik onartuko".

**Joxe Etxeberria**
Aralar

### "Eskualdatzeko zorian da Iturbide kudeatzea"

"Ados gaude inbertsioekin: Gizarte Zerbitzuak eta Helduen Heziketa Iraunkorra lekuz aldatzea, Gazte Topagunea egitea eta Gorostizako igogailuaren obra. Beste bi konturekin ez gaude ados: legealdiko hirugarren aurrekontua da; beraz, beranduegi EBPN onartzeko; eta Iturbideren kudeaketa Diputazioari eskualdatzeko zorian dago, eta langileen soldatak mugitzeko balazta sakatuta".

**Pello Urizar**
Eusko Alkartasuna

### "Benetan egin da esfortzua gastua txikitzeko"

"Kontuan izanda egoera berezia, benetan egin da esfortzua gastua txikitzeko. Beti egon daitezke gai konkretu batzuk indartu egin daitezkeenak, baina ikusi dut aurkeztu diren emendakinak onartzeko Gobernuak borondatea erakutsi duela. Horrez gain, beharrezkoa da gizarte gaien inguruko laguntzak bermatzea eta mugikortasun publikoa indartzea. Eta hori egiteko asmoa du Udal Gobernuak".

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE




islada
ile apaindegia
SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.
Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: *isladaileap@hotmail.com*

## oharrak

ELKARTASUNA
**> Haitirako laguntza**
Gobernuz kanpoko Harreman erakundeak Arrasaten bost kontu korronte zabaldu ditu Haitiko hondamendiak kaltetuendako laguntzak batzeko. Euskadiko Kutxan, BBVAn, CANen, La Caixan eta Gipuzkoako Kutxan, hain justu ere. Batzen duten dirua "elkartearengandik gertu dagoen proiektu edo elkarteren batera" bideratuko dutela jakinarazi dute.

Lagundu gura duenak esandako banketxe horietakoren baten galdetu besterik ez dauka.

SEXOLOGIA
**> Jostailu erotikoak**
Emakume Txokoan jostailu erotikoen gaineko tailerra egin behar dute otsailaren 19an eta 26an, 18:00etatik 21:00etara. Udal Sexologia Zerbitzuko arduradun Larraitz Arandok gidatuta, bi helburu ditu tailerrak: batetik, ohikoak ez diren edo ohiko merkatuan ez dauden jostailu erotikoak landu eta egitea; eta bestetik, testuingurua aprobetxatuta, emakumeendako esparrua sortzea, sexologia kontuen gainean dituzten kezka beldur eta bestelakoak lantzeko. Izenemate epea zabalik dago (943 79 41 39).


Gelmako bigarren blokeari dagokion urbanizazioa nahiko aurreratuta ikusten da. U.M.

**OBRAK** > ETXEBIZIZAK

# Martxorako bukatuko dituzte Gelmaren orubeko urbanizazio lanik handienak

## Euskal Herria plaza, berriz, urte bukaerarako amaituko dutela uste dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Martxoa. Horixe da Obenerrekakoek buruan duten data. Izan ere, martxorako bukatu behar dituzte Gelmako bigarren etxe-blokeari dagozkion obrak (merkatu libreko 80 etxebizitza). "Adibidez, Udalaitz zentro medikoa etxe horren behe-barruetara eramango dute, eta asmoa da martxoan bertan zabaltzea, baina baimenak falta dira, Udalaren baimenak", diote Obenerreka eraikuntza-enpresatik. Hori bai, etxea bukatu arren ere, etxebizitzak ez dituzte, oraingoz, salgai ipiniko, "krisi ekonomikoa dela-eta", xehetasunen arabera.

Horrekin batera, jakinarazi dute blokeen urbanizazioa ere martxorako amaitzea dela asmoa: "Euskal Herria plaza da egiteke geratuko litzatekeena; asmoa da hori ere urte amaierarako bukatzea. Dena den, plazari dagokionez, asko dago erabakitzeko: zelako loratetegiak izango dituen, kulunkak, jarlekuak eta beste".

**BABES OFIZIALEKOAK**

Bukatzeko, Gelmako orube zaharrean eraikitako babes ofizialeko etxebizitzei dagokienez, aditzera eman dute bost falta direla eskriturak egiteko eta astelehenean entregatuko dituztela bi. Horrenbestez, guztiak entregatzeko hiru bakarrik geratuko litzaizkeke: "Lehenengo etxebizitzak uztailean entregatu genituen, gehiena, irail-urrian, eta falta direnak ez dira entregatu batzuek uko egin dietelako etxebizitzei".

**JAIAK**

# Gesalibar auzoan Santa Ageda gogoan

## Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña, besteak beste, gaurko afarian

**U.M.** > ARRASATE

Arratsaldeko mezarekin (18:30ean) hasi dituzte gaur (egubakoitza) Santa Ageda jaiak Gesalibar auzoan. Eta jarraipen indartsua izango dute, besteak beste, gaur gauean Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolari aski ezagunek jardungo dute-eta afalostekoa alaitzen.

Bihar, berriz, 11:00etarako umeendako jolasak iragarri dituzte eta eguerditik aurrera Santa Agedako koplak abestera irteteko asmoa dute.

**TXALAPARTA TALDEA**

Domekari dagokionez, ez dira faltako Gesalibar eta Garagartzako koruek lagundutako meza eta osteko luncha . Eta, besteak beste, txalaparta saioa izango dela ere iragarri dute, eguerdian.

UDAL HAUR ESKOLA



umezaintza
0-3 URTE San Andres, 8
uribarri
JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE Uribarri etorbidea, z/g.
MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 1etik 12ra
Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu
902 11 20 25
www.arizmendi.eu
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua
Arizmendi ikastola

**GIMNASIA ERRITMIKOA** > A MAILAKO ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

# Ibarreko gimnastek bihar hasiko dute denboraldia Arrasaten

Eskola Arteko A mailako lehenengo fasea Uarkapen egingo dute bihar, zapatua; 10:00etan hasiko dituzte saioak



Arrasateko infantil mailako taldea. ARRASATE DRAGOI

**XABIER URTZELAI** > ARRASTAE

Debagoieneko gimnastek bihar hasiko dute denboraldia, A mailako eskola arteko txapelketako lehenengo fasearekin. Hala, Arrasateko Dragoi taldeko neskekin batera lehiatuko dira ibarreko gainontzeko gimnastak ere.

Goizeko saioak 10:00etan hasiko dituzte, eta, bazkaltzeko atseden hartu eta gero, 16:45ean hasiko dituzte arratsaldeko saioak.

**DENBORALDI HASIERA**

Goizean, alebin eta infantilak bakarka eta taldeka lehiatuko dira; kadeteak –A eta B mailakoak–,berriz, bakarka. Arratsaldean kadeteak taldeka lehiatuko dira eta gazte mailakoak –A eta B mailakoak– taldeka eta bakarka. Ondoren, seniorren txanda iritsiko da, haiek ere A eta B mailetakoak. Eta eurek ere bakarka eta taldeka egingo dituzte saioak.

**DRAGOIKO ORDEZKARIAK**

Infantiletan taldea osatuko dute Maialen Gallardok, Alba Etxeandiak, Eider Altubek, Nerea Garaik eta Nagore Etxebarriak.

Kadete mailan, berriz, taldekako saioan egongo dira Aintzane Rodriguez, Ainhoa Delgado, Olatz Fernandez, Eider Etxebarria eta Paula San Miguel.

Gazte mailan, berriz, bakarkako saioetan lehiatuko dira Aner Miren Errazkin, Ane Ormaetxea eta Nerea Otxoa.

> MENDIA

## Besaidek bi irteera prestatu ditu otsailerako

Otsailaren 21erako egun bateko mendi irteera prestatu dute Besaidekoek, oinez egiteko. Araba aldera joango dira mendi zeharkaldia egitera, Koartangon hasi eta Oterosetik Aperregira. 07:30ean da irteera ordua eta izena emateko egunak dira otsailaren 15a, 16a eta 17a (19:30-20:30, Besaiden).

Asteburu berean, hilaren 21ean eta 22an mendiko eskia egitera joango dira Frantzia aldera, Bataillance eta Gedre arteko zeharkaldia egitera. Izenematea otsailaren 15ean eta 16an (19:30-20:30).

> PILOTA

## Arrasateko AGT pilota taldeak gaur egingo du angulen zozketa

Eguren arrandegiaren laguntzarekin, Arrasateko pilota taldeko kideek gaur, hilak 5, egingo dute angula kiloaren eta bi bisiguren zozketa. Arrasateko taldekoek jakinarazi dute joan den astean angula kiloa 675 eurotan zegoela eta bisigua 30-35 eurotan kiloa. Sari ederra, horrenbestez.

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Ekaitz-Steaua del Grifo | 9-3 |
| Fidel & Disc-Katenatxio | 8-5 |
| Betrayer-AT Celaya | 4-9 |
| Aldapa-Mc AwenDauen | 0-4 |
| Dublin-Komando Alpargat | 6-2 |
| Dribling-Iluntz | 9-1 |
| Lasagabaster-Iriztu | 1-2 |
| Cipris-Abokajarro | 4-7 |

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| **Otsailak 6, zapatua** | EPAILEAK |
| **11:30** Dribling-Cipris | **Antolatzaileak** |
| **12:30** Betrayer-Dubling | **Antolatzaileak** |
| **Otsailak 7, domeka** | EPAILEAK |
| **11:30** Lasagabaster-Iluntz | **Antolatzaileak** |
| **12:30** Komando Alp.-Abokajarro | **Antolatz.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dublin | 27 | 9 |
| 2. | Dribling | 24 | 9 |
| 3. | Iriztu | 22 | 9 |
| 4. | Abokajarro | 19 | 9 |
| 5. | Betrayer. | 17 | 9 |
| 6. | Cipris | 15 | 9 |
| 7. | AT Celaya | 14 | 9 |
| 8. | Lasagabaster. | 14 | 9 |
| 9. | McAwenDauen | 12 | 9 |
| 10. | Fidel & Disc | 12 | 9 |
| 11. | Ekaitz | 12 | 9 |
| 12. | Komando Alpargat | 5 | 9 |
| 13. | Iluntz | 4 | 9 |
| 14. | Aldapa | 4 | 9 |
| 15. | Katenatxio | 3 | 9 |
| 16. | Steaua del grifo | 0 | 9 |

### Final-laurdenak

Liga alde batera utzita, kopa txapelketari helduko diote asteburuan Zaldibarren. Dagoeneko final-laurdenak daude jokoan!



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILAREN 1etik 12ra

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Guk bezala, egin apustu, egin kiñu Euskal Eskola Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74



*Drool* filmeko irudia. GOIENKARIA

**PROGRAMAZIOA** > OTSAILA

# Zinegoak jaialdiko 'Drool' filma eskainiko dute eguenean Amaian

'Drool' filma eta 'Socarrat' film laburra eguenean emango dituzte Amaian, 20:30ean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Zinegoak 2010 gay-lesbo-trans zinema jaialdiko film labur bat eta film luze bat emango dituzte eguenean Amaia antzokian, 20:30ean.

David Moreno Perezen *Socarrat* komediarekin hasiko dute emanaldia. *Socarrat* 11 minutuko film laburra da. Ondoren, *Drool* filma eskainiko dute. Nancy Kissam zuzendariaren lanak Anora Fleecen bizitza kontatzen du. Anorak senarraren tratu txarrak jasaten ditu, seme-alabek begirunea galtzen diote eta herri txiki baten bizi da. Egun baten, Imogene Cochran etorriko da auzora bizi izatera, eta bien artean erlazio estua hasiko da. Chebe, Anoraren senarra, bi emakumeen arteko erlazioaz konturatzen denean hondamendia gertatuko da.

**DOMEKAN ETA ASTELEHENEAN**
Bestalde, domekan eta astelehenean, *No es tan facil* filma eskainiko dute Amaia antzokian. Nancy Meyersek zuzendutako komediak 118 minutu irauten du eta publiko guztiari zuzenduta dago. Domekan 19:30ean emango dute filma eta astelehenean 20:30ean.

**UMEENDAKO GOMENDATUTA**
Domekan, 17:00etan, haurrentzako *Igelak & Zapoak* filma eskainiko dute. Umeentzat bereziki gomendatutako filma da aipatutakoa. Simone Van Dusseldropek zuzendu du eta 74 minutuko iraupena dauka.

**AURKEZPENA**
Otsailaren 26an, Jon Anduezak *Simplemente* filma aurkeztuko du Amaian. Aurkezpena 19:30ean izango da. Down sindromea dutenekin eta haien gainean egindakoa da dokumentala. Victoria Eugenian estreinatuko dute otsailaren 16an.

> KULTURATE

## Aurrerantzean haur liburutegiak ordutegi berria izango du, eta goiz guztietan zabalduko dute

Haur liburutegia, aurrerantzean, egunero zabalduko dute goiz eta arratsaldez. Orain arte arratsalde guztietan eta eguazten eta egubakoitz goizetan zabaltzen zuten. Bada, aurrerantzean ordutegia izango da: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara; zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

Modu horretan, herritarren beharrak ase eta eskaintza hobetu gura dute Udaleko Kultura arduradunek.

> LEHIAKETA

## Dagoeneko prest dute Aratusteak iragarriko dituen kartela

Jose Manuel Urdanpilleta elgoibartarrak egindako kartelak irabazi du Aratusteetako kartel lehiaketa. Irudian ikusten denez, kartel originala eta dibertigarria da aukeratutakoa.

Datorren astean, otsailaren 13an, ospatuko dituzte aratusteak Arrasaten.




Kartel irabazlea. GOIENKARIA

> ERAKUSKETA

## Zaborrarekin egindako sormen lanak daude ikusgai Kulturaten hilaren 28ra arte

Birbira taldeak *Zaborreria* erakusketa jarri du ikusgai Kulturateko klaustroan. Izenak dioen moduan, birziklatutako zaborrarekin egindako lanak dira; hain zuzen, sormen lanak. Hala, zaborra birziklatu eta hondakin kantitatea txikitu egin daitekeela erakutsi gura dute Birbira talde nafarreko kideek. Erakusketa otsailaren 28ra arte egongo da ikusgai Kulturateko klaustroan.





Gizonezko bat aloe veraz egindako eskuetarako krema probatzen. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > AZOKA

# Domekara arte 18 postu plazan, zaporeen eta artisauen ferian

Galiziako jakiak dastatzeko ere emango ditu Javier Ferreiro maisu pulperoak, karpa baten

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Galizia, Gaztela eta Leon, Errioxa, Kantabria eta Euskal Herriko jakien kolore eta usainek hartu dute San Martin plaza atzotik, eguena. Zaporeen eta artisauen feria ekarri du herrira JC 2000 enpresak eta domekara arte egongo da San Martin plazan.

18 postu daude plazan: 10 gastronomia postu; hiru artisau eta bost berritasun postu. Gastronomiari dagokionez, 30 lekale mota ikus daitezke, euskal pastela, gazta, baserriko produktuak... Artisauen kasuan, hiru postuetako bitan Valentziako bisuteria dago ikusgai eta hirugarrenean, Bartzelonako larrua.

Berritasun postuen kasuan, askotariko bitxikeriak daude: zikintzen ez den mahai-zapia, garbitzeko ura bakarrik behar duten eskularruak, oliorik behar ez duen zartagina, bibratzen duten kuxinak, aloe veraz egindako gaiak...

**GALIZIAKO JAKIAK**

Artisau eta bestelako jaki postuekin batera, Galiziako produktuak dastatzeko tabernatxoa ere jarri dute: erezak (nabajak), muskuiluak, lakoia, olagarroa... dastatu ahal izango dira. Jakiok ez ditu edozeinek prestatuko, gainera, Javier Ferreiro maisu pulperoak baizik –bi bakarrik daude Galizia osoan. Tabernatxo hori karpa baten jarri dute eta mahai eta aulkiak ditu Galiziako produktuak lasai dastatzeko.

Azokaren ordutegia da: 11:00-14:00 eta 17:00-22:00 –taberna 00:00ak arte.

**EUSKARA** > AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

# Amodiozko 62 gutun jaso ditu Jardun elkarteak

Epaimahai nagusia gaur batuko da; epaimahai gazteak dagoeneko erabaki du gazteen saria

**M.B.** > BERGARA

Nabarmen egin du gora parte-hartzeak amodiozko gutunen aurtengo lehiaketan. 62 gutun jaso dituzte Jardun euskara elkarteko kideek. Azken hiru urteetako datuei erreparatuz gero, 2007an 37 jaso zituzten; 2008an, 38; eta 2009an, 48.

Jasotako gutun gehienak, 42, gipuzkoarrenak izan dira. Horietatik, Bergarakoak 10 izan dira eta bailarako gainontzeko herrietakoak, 19. Bizkaiari dagokionez, 15 gutun iritsi dira; Nafarroa eta Arabatik bana eta Euskal Herri kanpotik ere bat.

Parte-hartzaileen profilari dagokionez, emakumezkoak nagusitu dira (41 gutun) gizonezkoen aurretik (21 gutun) eta adinaren kasuan, batez bestekoa izan da 25-30 urte bitartekoa.

Epaimahai gaztea aurreko eguenean batu zen eta dagoeneko erabaki dute gazteen saria. Epaimahai hori osatu dute Ipintza institutuko Maialen Odriozola eta Amaia Azpeitia ikasleek eta Aranzadiko Ane Barragan eta Jon Montiel ikasleek.

Epaimahai nagusiaren kasuan, osatu dute Jasone Osoro idazleak, Amaia Agirre bertsolariak, Gotzon Barandiaran idazle eta musikariak eta Imanol Sorondo iazko irabazleak. Gaur batuko dira kultura etxean lehen eta bigarren sariak eta Bergarako lan onenaren saria erabakitzeko. Jardun elkarteak datorren astean emango ditu ezagutzera irabazleen izenak.

**HEZKUNTZA** > IKASTETXEAK

# Plan estrategikoa aurkeztu berri du Aranzadi ikastolak

Euskaltzaleak batuko dituen erreferentziazko kalitatedun ikastetxea izatea du helburu

**M.B.** > BERGARA

Eguenean, datozen lau urteetarako plan estrategikoa aurkeztu zuen Aranzadi ikastolak. Planean, eskolaren misioa, datozen lau urteetarako helburua eta balioak definitzen dira; baita helburua lortzeko ezarritako estrategiak ere.

Aranzadi ikastolaren misioa da ikastetxearen euskal izaera eta kudeaketa autonomoa baliatuz ikasleak heztea, taxuzko euskal hiritar izan daitezen. Markatutako helburuari dagokionez, berriz, euskaltzaleak batuko dituen erreferentziazko kalitatedun ikastetxea izan nahi du, eta horrekin batera instalazioak berritu nahi ditu.

**ESTRATEGIAK**

Helburua lortzeko estrategiak lau multzotan banatu dituzte: zerbitzuari dagozkionak –0-3 urte artekoendako zikloa martxan jartzea eta proiektu pedagogiko berritzaileak finkatzea–; antolamendu eta funtzionamenduari dagozkionak –kalitatezko zerbitzua bermatzeko baliabideak jartzea, esaterako–; marketin arlokoak –herriarentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintzak antolatzea, besteak beste; eta finantzei dagozkionak –bideragarritasun plana egitea.

Plan estrategikoaren garapenean, irakasle, guraso eta ikasleek hartu dute parte iritzia emanda: 41 langilek, 97 gurasok eta batxilergoko 21 ikaslek.

**UDALA** > KIROL ZERBITZUA

# Agorrosingo ikastaroek 8,31 puntu jaso dute batez beste

Erabiltzaileek erantzundako inkestek diote hori

**M.B.** > BERGARA

Agorrosingo ikastaroen balorazioak gora egin du. Gogobetetasun inkesta egin zuen Kirol zerbitzuak abenduan eta, batez beste, 8,31 puntu jaso dute; aurreko urteko data berean 7,55 puntu jaso zuten. Horrekin guztiarekin, ikastaroen balorazio positiboa egin du Udaleko Kirol zerbitzuak.

**IGERIKETAK PUNTU GEHIEN**

Puntu gehien jaso dituen ikastaroa izan da 4-7 urte artekoendako igeriketa; 9,62 puntu eta gutxien jaso dituena izan da 0-2 urte artekoen igeriketa: 7,25 puntu.

Tai chi ikastaroak 9 puntu jaso ditu; yogak, 8,75; Pilatesek, 8,37; aerodancek, 8; gimnasia harmonikoak, 7,75; eta areto txirringak, 7,75. Inkestetan puntualtasuna, erabilitako baliabideak eta irakaslea puntuatu dituzte, besteak beste, erabiltzaileek.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

MIZPILDI



OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

José Mª Martin
PINTURA INDUSTRIALA
PINTURA DEKORATIBOA
PAPER PINTATUAK
SINTASOLA
MOKETAK
GOTELEA
Aiherra 5, behea
Tel.: 666 51 72 95 / 943 76 62 02
ANTZUOLA


Zatoz
Bergarako
Eskola
Publikora
Euskera
Kalitatea
Konpromisoa
Etorkizuna
San Martin Agirre
Herri Eskola
IPINTZA
Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik-12ra.
Ate Irekiak : Otsailaren 6an, 16:30etik - 19:30era San Martin eskolan.
goieskola
baikara
0-2 urte
2-12 urte
12-18 urte
Martinez de Irala.
Haurreskola
San Martin Agirre
Herri eskola
Ipintza
Institutua
IPINTZA
Bigarren Hezkuntzako Institutua
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
Helduen
Eskola
EPA

**KULTURA** > ANTZERKIA

# Mama Crea antzerki taldeak umorea ekarriko du Zabalotegira

## '¿Se puede?' antzezlana egingo du bihar, zapatua, 20:00etan; sarrera 5 euro da

## Bestalde, neguko festei buruzko erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Mama Crea antzerki taldeak *¿Se puede?* izeneko lana antzeztuko du Zabalotegi aretoan. Umorezko ikuskizuna da, bakarkako lana, gozoa eta dibertigarria. Istorioa kontatzeko *gag*-ez baliatzen da, eta baita mugimendu komiko eta objektuen manipulazioaz ere.

*¿Se puede?* antzezlaneko protagonistak senarraren heriotzari egin behar dio aurre; baina onartuko du? Noraino iristeko kapaz izango da maite duen pertsona horren heriotza ez onartzeko?

Bide horretan, *¿Se puede?* hurbiltzen da heriotzak sorrarazten dituen sentimenduetara, baina ikuspuntu komikotik: dramak groteskoarekin topo egiten duenean zein izaten da emaitza?

Emanaldia bihar, zapatua, izango da, 20:00etan.

**'NEGUKO FESTAK' AROZTEGIN**
Enza taldeak *Neguko festak* izeneko erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

Erakusketa horretan, batik bat, Inauterietako pertsonaiak ikusi ahal izango dira. Euskal Herrian barrena dauden Inauterietako pertsonaiak izango dira: Miel Otxin, Maskaradetako protagonistak... Horrekin batera, euskal tradizioko beste hainbat elementu ere egongo dira erakusketan: mozorroak, zintzarriak, animalien larruak... eta espiritu txarrak uxatzeko eta animalia eta uztak babesteko erabili izan diren beste hainbat.

Erakusketa ikusgai egongo da hilaren 21era arte honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30 ordutegian; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.



*¿Se puede?* antzezlaneko une bat. GOIENKARIA

**JAIAK**

# Askotariko ekitaldiak San Blas jaietan

## Dantzak, jolasak eta herri kirolak egongo dira, besteak beste, gaurtik domekara

**M.B.** > BERGARA
Eguaztenean, San Blas eguna, zaindariaren eguna ospatu zuten Murinondo auzoan, baina ekitaldi nagusiak gaur hasi eta domekara arte izango dira. Gaur Santa Ageda eguna da eta, ohiturari jarraituz, San Blas ermitako anaidiek batzarra egingo dute, 19:00etan. 20:30ean, berriz, auzo afaria egongo da. Bihar, zapatua, 22. San Blas saria mus txapelketa jokatuko da, 16:00etan. Izenematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Domekan meza nagusia izango da 11:00etan eta bukatu eta gero, salda eta txistorra banatuko dituzte. 11:30ean, Moises Azpiazu dantza taldekoek erakustaldia egingo dute eta haiek amaitu eta gero Fausto aizkolariak jardungo du. Kukainak ere egongo dira.

# Larrañaga eta 'Uritxa' musean irabazle

Zapatuan Euskal Herriko mus txapelketaren herriko kanporaketa jokatu zen Artatse elkartean. Hamar bikotek hartu zuten parte eta irabazleak izan ziren Jose Luis Arietaleanizbeaskoa *Uritxa* eta Jose Mari Larrañaga. Bai Euskal Herriari taldeko Jose Mari Arantzabalek eman zien saria: ardoa, xanpaina eta bildotsa. Irabazleek Gipuzkoako kanporaketa jokatuko dute Seguran hilaren 27an.



EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

## oharrak

BATZARRA
**> Pertxa elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 6an**
Pertxa elkarteak urteko batzarra deitu duela jakinarazi nahi die bazkideei. Bihar, otsailak 6, izango da; 18:00etan da lehenengo deialdia eta 18:30ean, berriz, bigarren deialdia.

IRTEERA
**> San Joxepek Kutxaespaziora irteera antolatu du**
Irteera izango da martxoaren 3an, 09:00etan autobus geltokitik abiatuta. Izenematea zabalik dago elkartearen bulegoan 11:30-12:30 eta 17:30-18:30 ordutegian.

ODOL ATERATZEA
**> Hurrengo odol ateratzea otsailaren 17an izango da**
Otsaileko odol ateratzeei dagokienez, bakarra egongo da eta izango da otsailaren 17an, ohi bezala Seminarioko egoitzan, 18:00etan hasita.

URBANOA
**> Bonu sistema ezarri du Udalak urbano zerbitzuan**
Hamar bidaiako bonuak dira eta urbanoan eskura daitezke, 5 eurotan. Bonuarekin 0,50 euro kostako da bidaia bakoitza; osterantzean, euro bat da bidaia. Astelehena ezkero (otsailak 1) daude erabilgarri bonuak.

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
• Eskaiola eta pladurra
Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

CAMACHO
Drogeria
Lurrindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34


Batxilergoko ikasleak Fisikako esperimentuak erakusten LHko ikasleei Ikastola Egunean.



4 urteko ume bat ingelesa ikasten.


3. mailako ikasleak Ikasys proiektua lantzen.



**Ane Barruso** > Aranzadi ikastolako zuzendaria

# <Aranzadi Ikastolako proiektua pertsona bera da>

**Ikastola, eskola, ikastetxea... terminoen arteko desberdintasuna azalduko diguzu?**

Termino horiek linguistikoki sinonimoak dira. Dena den, IKASTOLA hitza erabiltzen dugunean, gehienetan behintzat, orain 40 bat urte Euskal Herriak zituen beharrei erantzuteko sortu zen mugimenduaz ari gara, ikastolen mugimenduaz, zeinek 101 ikastola batzen dituen Euskal Herrian. Gure helburua betetzeko, guk **geuk sortutako ikasmaterialak erabiltzen ditugu**; beste ikastetxe gehienek, berriz, euskaratutako erdal bertsioak baliatzen dituzte.

**Ikastolak ikastetxe kontzertatuak zarete. Azal al dezakezu zer den hori, mesedez?**

Administrazioak ezin ditu bere menpe hartu Euskal Herriko ikastetxe guztiak, ez dauka horretarako ez ahalmen ekonomikorik, ezta pertsonalik ere; beraz, egiten duena zera da: beste ikastetxe batzuk kontzertatu, azpikontratatu…, berak bete ezin duen zerbitzua bete dezaten. Hori horrela, ikastetxe kontzertatuek abantaila batzuk ditugu: autonomia handiagoa pertsonala kontratatzerakoan, antolaketa, eduki, ordutegi… mailan

**Zer da ARANZADI IKASTOLAK bere bezeroei eskaintzen diena?**

Gure proiektua **PERTSONA bera da** eta, horregatik, gure ikasleekin lantzen duguna bere osotasuna da.

Lehen eskolak ezaguera kontzeptualak bakarrik irakasten zituen. Gaur egun ikaslea, lehenik, pertsona bezala ikusten dugu, bere bizitzak dituen eremu guztiak kontuan hartuta: bere ahalmen fisikoa, intelektuala, bere bizipenak, sentimenduak, familia, lagunak, eskola…

**Honek tratu oso pertsonalizatua eskatzen du**, bai ikasleekin baita beren gurasoekin ere. Ikasleak etengabeko harremanak dituzte beren irakasleekin, klasean eta klasetik kanpo; eskola ordutan eta eskola orduz kanpo.

**Zuen eskaintza pedagogikoan beste zerbait azpimarratuko zenuke?**

Bai, alde batetik hizkuntzen trataera azpimarratuko nuke. **Lau hizkuntza eskaintzen ditugu** ikastolan: **euskara**, batua nahiz herriko aldaera, **gaztelania**, **frantsesa** eta **ingelesa**.

**Gure eskolako hizkuntza euskara** da, besteak atzerriko hizkuntzak dira guretzat.

**Gaztelania** 3. mailan hasten gara lantzen eta emaitzak onak dira. Horrela adierazten dute EAEko beste ikastetxeekin alderatutako emaitzak.

**Frantsesa** DBHtik aurrera eskaintzen dugu.

**Ingelesa** lantzen 4 urterekin hasten gara eta DBH 3. mailatik aurrera Giza Zientziak **ingeles hutsean** ematen dute. Hizkuntza guztiak dute helburu bat: komunikatzen ikastea.

Beste berezitasun bat **metodologiarik berritzaileen erabilera** dela esango nuke. Adibide asko badaude ere, **IKASYS** proiektua azpimarratuko nuke. Proiektu honen bidez, ikasle bakoitzak bere ordenagailu txikia du gelan eta bost gai desberdin lantzen ditu bere erritmora, bere autonomiaz, bere gaitasunaren arabera eta ordenagailuak eta programak berak eskaintzen dioten erakargarritasunaz. EHUk egindako kanpo ebaluazioak oso emaitza onak eman ditu.

Honetaz gain, gure ikasmaterial guztiek dute beren langintza ordenagailu bidez, 3 urtetik hasi eta goraino.

**Gaur egungo guraso askok lan egiten du. Zer eskaintzen die zuen ikastolak nolabait lana eta haurren zaintza uztartzeko?**

Zerbitzu eskaintza zabala daukagu: umezaintza goizeko 7etatik iluntzeko 7ak arte dago zabalik, eta jai ofizialetan soilik ixten da: Gabonetan, Aste Santuan eta uztailean irekita dago, baita jantokia ere. Garraio zerbitzua ere badaukagu eta behar izanez gero, harrera gela ere bai.

**Interesa izanez gero, bisita daiteke zuen ikastola?**

Bai, eskola ordutan etor daitezke nahi duten gurasoak eta Zuzendaritza Taldeko kideren batekin haurrak geletan ikusi, dituzten zalantzak galdetu eta elkarrizketa izateko aukera dago. Gurekin egoteko hobe da telefonoz deitzea komeni zaien orduan libre gaudela ziurtatzeko (943 76 90 71), baina hitzordurik gabe ere etor daitezke. Plazatik sartu eta idazkaritzara jo, besterik ez dute egin behar.

## ARANZADI IKASTOLAKO ESKAINTZA

> **GARAPEN INTELEKTUALA:** kultura orokorra izan dezan edo egin nahi dituen ikasketak egin ditzan, beharrezko kontzeptu, prozedura eta jarrerak irakasten dizkiogu.

> **EUSKAL NORTASUNA:** lehengoarekin lotura zuzena badu ere, guretzat apartekoa da euskal nortasuna, garrantzi berezia dauka gure curriculumean. Ezin dezakegu ahaztu Euskal Curriculumaren diseinua ikastolen mugimenduak egindakoa dela.

> **GARAPEN FISIKOA:** garapen intelektuala bezain garrantzitsua denez, arreta berezia eskaintzen diogu garapen fisikoari.

> **EMOZIO ETA SENTIPENEN GARAPENA:** ezinbestekoa deritzogu emozio eta sentipenen munduan eragitea, horrek baldintzatuko baitu ikaslearen bizitza osoa, ikasketak barne. Horregatik, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko programazioa daukagu sortuta adimen emozionala garatzeko.

> **GARAPEN SOZIALA:** aurreko guztiaz gain, ikaslearen giza harremanak ditugu oso kontuan hartzekoak eta horretarako Aranzadi Ikastolak berak bere jardunerako propio diseinatutako Elkarrekin Bizi programa daukagu, non ikasleak aktiboki hartzen duten parte bere planifikazioan.

***<Irakasleen gertutasuna eta prestutasuna, Aranzadiren balio erantsia>***

***<Gure misio edo eginbeharra Euskal Herriak behar dituen hiritarrak prestatzea da>***

***<Emaitza akademikoak EAEkoak baino hobeak dira>***

***<Elkarbizitza plan orokorraren oinarriak: norbera, besteak, ingurua, ingurugiroa>***

***<Ikastola gurasoen kooperatiba da eta beraiek daude organo erabakitzaileetan>***

*Kalitatezko Euskal Heziketa*

ARANZADI ikastola

San Martin Agirre plaza
Bergara
Tel.: 943 76 90 71
*www.aranzadiikastola.org*




Txikienek erabiltzen duten jolaslekuari zati bat kenduko diote igogailua jartzeko; hain zuzen ere, argazkiko leihoen atzean. M.B.

**HEZKUNTZA** > ERABERRITZEA

# Irisgarritasuna hobetuko dute Herri Eskolan

## Besteak beste, komunak, aldagelak eta dutxak eraberrituko dituzte, eta igogailua jarriko dute

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Duela lau urte egindako proiektua egia bihurtuko da laster Errekalde Herri Eskolako irakasleendako, gurasoendako eta ikasleendako. Hezkuntza Sailak argi berdea eman dio ikastetxeko irisgarritasuna hobetzeko proiektuari, eta lanak datozen egunetan hasiko dituzte. Guztia egiteko 684.576 euroko aurrekontua du Hezkuntza Sailak.

**IGOGAILUA KANPOTIK**
Oztopo arkitektonikoak kendu, irisgarritasuna hobetu eta eskola barruko zerbitzuak berrituko dituzte. Instalaciones Inabesa enpresak egingo ditu lanak.

Lehen solairuan, komunak, dutxak eta aldagelak berrituko dituzte. "35 urtetan ez dira berritu. Aldika, konponketak egin ditugu, baina ezin genuen horrela jarraitu", esan digu eskolako zuzendari Jose Fernandezek.

Bestalde, igogailua jarriko dute. Txikienek erabiltzen duten jolaslekuari zati bat kenduko diote, eta kanpotik jarriko dute. Igogailua "ezinbestekoa" dela dio zuzendariak: "Egungo edozein eraikuntzatan ezinbestekoa da igogailua egotea. Guk bigarren solairuan dugu biltegia, eta igogailuak lana arinduko digu". Baina, igogailua beharrezkoa ikusten du mugikortasun arazoak dituzten ikasleendako eta gurasoendako. "Egun, mugikortasun arazoak dituen ikasle bat dugu. Besoetan igotzen dute gelara. Aurrerantzean, ez dugu arazo hori izango", dio Fernandezek.

**DATUA**
**684.000**
**EURO**
684.574 euro jarriko ditu Hezkuntza Sailak Errekalde Herri Eskolako lanak egiteko. Gehienbat, irisgarritasuna hobetuko dute. Era berean, komunak berrituko dituzte.

**LANAK ZATIKA EGINGO DITUZTE**
Lanak datozen egunotan hasiko dituzte, eta eskolaren martxan ahalik eta eragin txikiena izan dezan, zatika egingo dute. "Komunekin hasiko dira, eta komunak eraberritu ondoren aldagelak. Ez dute lan bat egingo aurrekoa bukatu arte. Gainera, igogailua Lehen Hezkuntzakoen gelak dauden aldera jarriko dute, eta zarata handia egongo da", dio. Futbolean jokatzen duten gunera joateko, altuera gutxiago duen arrapala berria egingo dute.

Makinak eta materiala eskolaren atzeko gunean utziko dituzte eta hesitu egingo dute, ikasleek arriskurik izan ez dezaten. Langileek sarrera moduan Oñatz taldearen lokalera joateko atea erabiliko dute.

Lanak uztailerako amaitu beharko lituzkete.

> DEIALDIA

### Ordutegia aldatu dute gaurko odol-ateratzerako: 18:30etik 20:30era egingo dute ikastolako aretoan

Oñatiko Odol Emaileen taldekoek ordutegia aldatu dute gaurko odol-ateratzerako. Normalean baino ordu erdi beranduago hasiko dira. Hain zuzen ere, 18:30etik 20:30era egingo dute. Aldatzen ez dena tokia da; betiko legez, Txantxiku Ikastolako aretoan egongo dira medikuak eta erizainak.

Hurrengo odol-ateratzeak egingo dituzte martxoaren 12an, apirilaren 6an, maiatzaren 7an, ekainaren 11n, irailaren 10ean, urriaren 8an, azaroaren 12an eta abenduaren 10ean.

> INAUTERIAK

### Eguen Gizen eguna Pake Lekun ospatu gura dutenek txartelak erosi beharko dituzte aurretik

Hilaren 11n ospatuko dute Eguen Gizen eguna Pake Leku erretiratuen elkartean. Festan parte hartu gura dutenek txartela erosi beharko dute aurretik; hain zuzen ere, hilaren 8an, 9an eta 10ean hartu beharko dituzte elkarteko tabernan. Erretiratuen elkarteko bazkideek 1,80 euro ordaindu beharko dute txorizo-ogitartekoagatik. Edaria elkartearen kontura izango da. Festa borobiltzeko dantzaldia egingo dute.

> DEIALDIA

### Arrantzarako federatu txartelak eska daitezke Pago-Uso elkartean edo Nikolas ileapaindegian

Arrantza denboraldirako federatu txartelak egin ahal izateko deialdia egin du Pago-Uso elkarteak. Interesatuei tramitazioa egiten lagunduko diete elkartean bertan eguaztenetan, 20:00etatik 21:00etara; edo, Kalezaharrako Nikolas Ugarte ileapaindegian. Bi maila daude arrantzako federatu txarteletan: nagusiak (26 euro); eta infantilak –14 urte artekoak– (9 euro). Ordainketa aurrez egin behar dela gogorarazi dute Pago-Uso elkartekoek.

> DEIALDIA

### Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa bat domekan jokatuko dute Antton tabernan

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa bat domekan jokatuko dute Antton tabernan 16:30ean. Izenematea jokoa hasi aurretik egingo dute, hain zuzen ere, 16:00etatik 16:30era. Parte hartzaileek ez dute inolako baldintzarik bete behar. Oñatiko kanporaketan lau bikotek baino gehiagok parte hartzen badute, bikote irabazleak aurrera egingo du. Euskal Herriko mus txapelketa lau erregetara jokatzen dihardute.

> ELKARTASUNA

### Bihar eguerdira arte batuko dute Haitira bidaltzeko materiala Hermansoloña GKE-koek

Hermansoloña GKE-k bihar eguerdira arte batuko du Haitira bidaltzeko materiala. Gaur arratsaldean eta bihar goizean Bidebarrietako lokalean egongo dira. Hurrengo astean paketatuko dute guztia, eta Herriak Elkarlanean GKE-k Beasainen duen egoitzara eramango dute. Besteak beste, pasta, azukrea, dilistak, garbantzuak, olioa, analgesikoak, antibiotikoak, eskularruak, udako jantziak, izarak, mantak eta toallak batzen dihardute.

ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin
1970-2010
2010eko EROSKETA DOAN!
**2010ean GURE DENDETAN EGINDAKO EROSKETAK DOAN IZAN DAITEZKE ZURETZAT!**
Erosketa egiterakoan emango dizugun txartelaren zenbakiak Loteria Nazionalaren azkeneko hiru zenbakiekin bat egiten badu, egindako erosketaren zenbateko osoa bueltatuko dizugu.
**Anima zaitez eta ospatu urteurrena gurekin!**

ATLETISMOA

# Lan ona Gipuzkoako kros txapelketan

## Aloña Mendiko ordezkariek bost sari lortu zituzten Lasarteko proban

**M.B.** > OÑATI

Aloña Mendi atletismo saileko kideek bost sari lortu zituzten Lasarten jokatutako Gipuzkoako kros txapelketan. Hain zuzen ere, bi sari banaka eta hiru taldeka.

**EMAITZAK**

Marisol Ramos bigarren sailkatu zen beteranoen proban eta Sergio Gartzia bigarren izan zen promes mailan. Taldeko sariak izan ziren: senior mailan, bigarren saria (Sergio Gartzia, Yerai Varela, Dabid Huebra, Tasio Gomez eta Juan Soto); gazte mailan, hirugarren saria (Jokin Etxabe, Beñat Etxabe, Mikel Ugarte eta Endika Santamaria); eta alebin mailan, bigarren saria (Aitor Urizar, Jon Etxeberria, Joseba Otamendi eta Egoitz Mendia).



2008ko finalak Arrasaten jokatu zituzten. Argazkian daude hiru mailetako irabazleak eta finalistak. GOIENKARIA

**KIROLA** > PILOTA

# Oñatin jokatuko dituzte Debarroko pilota txapelketako finalak ekainaren 5ean

## Guztira, gazte, kadete eta senior mailetako 21 bikotek parte hartuko dute

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

63. Debarroko pilota txapelketa Aloña Mendi elkarteko pilota sailak antolatuko du. Maila ezberdinetan jokatzen den binakako txapelketa otsail bukaeran hasiko dute eta final handiak ekainaren 5ean jokatuko dituzte. Guztira, 21 bikote lehiatuko dira. Tamalez, ez da Oñatiko bikoterik egongo lehian.

**HERRI ASKOTARIKOAK**

Debarroko txapelketa hiru mailatako pilotariek jokatzen dute: kadeteek, gazteek eta seniorrek. Binaka jokatzen dute, eta nork bere herria ordezkatzen du.

Kadete mailan zortzi bikote lehiatuko dira; hain zuzen ere, Aretxabaleta, Eskoriatza, Eibar, Arrasate A, Bergara B, Bergara A, Arrasate B eta Lagunak; gazte mailan bost bikotek jokatuko dute: Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Arrasate A eta Arrasate B bikoteak; eta, azkenik, nagusien mailan zortzi lehiatuko dira: Lagunak B, Oskarbi, Lagunak A, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Eibar.

**LIGAXKA MODURA**

Lehenengo fasea ligaxka modura jokatuko dute; alegia, bikote guztiak elkarren kontra. Maila bakoitzeko lau bikote onenak finalerdietarako sailkatuko dira, eta irabazleek finalerako txartela lortuko dute. Hiru finalak ekainaren 5ean jokatuko dituzte Zubikoa kiroldegian.

Otsailaren 28an hasiko dute txapelketa gazte mailako bikoteek. Kadeteak eta seniorrak martxoaren 7an hasiko dira.

## beteranuak

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

| | |
|---|---|
| Lozorromo-Bundeswehr | 0-1 |
| Gibel Boys-Albok | 3-1 |
| Dollygans-Indar 85 | 7-2 |
| Zorro Bero-Gaur bai | 4-2 |

**PARTIDUAK**

**B TALDEA, OTSAILAK 6**

**14:00** Jai Ari-Nandrolona/ **Altube**
**18:00** Etxaixat-Ankarteko/ **Marku**
**19:30** Joxely-Txarrixak/ **Sasquatch**

**B TALDEA, OTSAILAK 7**

**14:00** Xaguxar-Kalañatasarayi/ **Mattin**

> **Atsedena:** Txuskos
> **Arduraduna:** Sasquatch

**SAILKAPENA**

| A TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Zorro Bero | 18 | 6 |
| 2. Doolygans | 15 | 6 |
| 3. The Gibel Boys | 11 | 5 |
| 4. Indar 85 | 7 | 6 |
| 5. Gaur Bai | 6 | 5 |
| 6. Sasquatch | 4 | 5 |
| 7. Bundeswehr | 4 | 5 |
| 8. Lozorromo | 2 | 5 |
| 9. Albok | 1 | 5 |

| B TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Txarrixak | 12 | 5 |
| 2. Xaguxar | 11 | 6 |
| 3. Joxely | 8 | 6 |
| 4. Txuskos | 8 | 5 |
| 5, Nandrolona | 7 | 4 |
| 6. Kalañatasaray | 6 | 4 |
| 7. Ankarteko | 4 | 4 |
| 8. Jai Ari | 3 | 5 |
| 9. Etxaixat | 2 | 5 |



**OSPAKIZUNA** > TXAPEL TXIN EGUNA

# Txapel Txinek emango du Aratusteen berri bihar ilunkeran

Umeendako ikuskizuna, torrada lehiaketa, suzko kalejira eta mokadutxoa herriko plazan, mozorro jaia girotzen hasteko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Txapela buruan eta jai giroa aldean duela etorriko da bihar Txapel Txin gurera. Musika, ikuskizuna eta jatekoa eskura izanda iragarriko dizkigu Aratusteak.

Herriko koadrilek eta Kultura Sailak elkarlanean Txapel Txin eguna antolatu dute. Ikuskizuna izango dute umeek Arkupen (17:00) Anne Monna taldearen eskutik: *Ino, ino, ino, badator Bonbardino*.



Txapel Txin iazko Aratusteak iragartzen. GOIENKARIA

Torrada lehiaketara aurkeztutako jakiak jasoko dituzte gero (18:00) epaimahaiko kideek proba ditzaten, eta ondoren (18:30), Tusuri taldeak girotuta, suzko kalejira egingo dute herritarrek Durana eta Mitarte kaleetan. Txapel Txin etorriko da kalejira ostean plazara (19:30) eta Aratusteak iragarriko dizkie aretxabaletar guztiei. Torrada lehiaketako sariak ere orduantxe banatuko dituzte: lehenengoarendako, 100 euro; bigarrenarendako, 50 euro; eta hirugarrenarendako, 30 euro. Eta ospakizuna bukatzeko (20:00), txistorra mokadutxoa eta torradak izango dira jateko, sagardoak lagun eginda.

**HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK**

Gaur, hilak 5, da azken eguna Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak erosteko –Arkupen, Kultura teknikarien bulegoan (09:00-13:00)–. Iturrigorri pilotalekuan izango da bazkaria eta 450 bat lagunendako tokia dago. Aurten bi menu zehaztu dituzte: 10 urte arteko umeendakoa, 12 eurotan; eta helduendakoa, 19 eurotan.

ARATUSTEAK 2010




Mikel Aldekoa. KULTURA SAILA

## Pailazoa jausgailuan, kartel irabazlea

Durangoko Mikel Aldekoak egindako kartelak iragarriko ditu aurtengo Aratusteak. 18 lan jaso zituzten Kultura Sailean –erdiak aretxabaletarrek eginak– eta ez dute lan samurra izan epaimahaiko kideek: "Kalitate handikoak eta politak zeudelako". Horregatik, aurkeztutako guztiak ikusgai jartzeko asmoa dute.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

### 36ko gerran behartutako lanak egin zituztenen gainean egingo du berba Edurne Beamount adituak

Astelehena ezkero dago ikusgai frankismo sasoiko esklabotzaren gaineko erakusketa eta gaur horren guztiaren gainean egingo du berba Edurne Beamount irakasle eta historian adituak; Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan. *Francoren esklaboak Pirinioetan* izeneko filma eskainiko dute. Memoriaren Bideak taldeak bultzatuta Eguzki Bideoak egindako filma da eta gutxitan aipatu izan den gaia jaso dute bertan: Francoren garaian behartutako lanetan jardundakoak. Filma ikusi ostean azalpenak emango ditu Beamountek.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: **943 79 19 79**

**HEZKUNTZA** > PROIEKTUA

# Zirkua aitzakia, Aratusteak helburu

**M.A.** > ARETXABALETA

Zirkua daukate Pausoka Haur Eskolan azken egunotan. Animaliak, pailazoak, eskujoko egileak... ez da inor falta. Gainera, karpa erraldoia jarri dute azken solairuan, zirkuko ikuskizunik harrigarrienak ikusteko.

**GURASO ETA LAGUNEI ZABALIK**

Urte berriarekin batera murgildu dira zirkuaren proiektuan eta bukaera Aratusteetan izango du: "Mozorrotzea, sarritan, ez da gustuko kontua izaten umeendako, eta zirkua aitzakia hartuta ileordeari, aurpegia margotzeari eta mozorroari beldurra kentzea da asmoa", dio Pausokako hezitzaile Jaione Zugastik.



Zirkuko ikuskizuna Pausokako karpa erraldoian. M.A.

Hala, eskolako gela eta txoko guztiak apaindu dituzte, zirkuarekin zerikusia duten jolasak egiten dabiltza, herriko hainbat datara joan dira mozorroak ikustera eta hainbat pertsonaiaren bisita izan dute karpa erraldoian: magoa, lehoi-hezitzailea, funanbulista, pailazoak... Hezitzaileak izan dira protagonistak saio horietan, baina jakinarazi dute guraso, aitaita-amama eta lagunei zabalik dagoela karpa.

Ekitaldi nagusia, ostera, Aratuste-martitzenean egingo dute: herriko plazara joango dira mozorrotuta gainerako ikastetxeekin batera dantzan egitera.

MAPFRE
DESKONTU BEREZIAK
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA ASEGURUETAN
INFORMA ZAITEZ!
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**ZIRKULAZIOA** > LANAK

# Santakurtz kalea noranzko bakarrekoa da aste honetatik

## Arrasate aldera bakarrik joango dira orain automobilak, eta hainbat aparkaleku lekuz aldatu dituzte



Santakurtz kale erdiko aparkalekuak kentzen martitzen eguerdian. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Martitzena ezkero noranzko bakarra dauka Santakurtz kaleak; Arrasate aldera joateko, hain zuzen. Hori horrela, Exprex taberna aurrean zeuden aparkalekuak kendu egin dituzte, eta bidearen bi alboetan jarri.

**APARKALEKUAK ALDATU**
Aretxabaletako iparraldeko sarrera, hau da, Arrasatetik datorren bidea itxita dagoelako hartu du erabaki hori Udalak. Izan ere, herriko iparraldera joateko bide bakarretakoa da Santakurtz kalea orain, eta zirkulazioa samurtu egin gura du noranzko bakarrekoa jarrita. Udalak ez du zehaztu gura izan Santakurtz kalearen gaineko erabakia betiko izango den edo herriko iparraldeko sarrera itxita dagoen bitarterako bakarrik –gutxienez, hiru hilabete.

**BASABETIK ILARGI PLAZARA, EZIN**
Mitarte kalea, ostera, egun batetik bestera zabalduko dute, eta, iragarritako moduan, zamalanak egiteko bakarrik izango da: astelehenetik egubakoitzera, 08:00-13:00 eta 15:00-18:00; eta zapatuetan, 08:00-12:00. Gainera, Mitarte eta Durana kaleen artean jarritako piboteak ez dituztela kenduko zamalan orduetan ere iragarri dute udaltzainek. Hortaz, Basabe bidetik ezingo da Ilargi plazarantz hartu, Durana kaletik aurrera joan beharko dute derrigorrez automobilek. Eta Mitarten zamalanak egiten dituztenak Ilargi plazatik joango dira, eta ez Duranatik aurrera. Udaltzainek eskatu dute kale batean zein bestean errespeta daitezela jarritako seinaleak.

**HEZKUNTZA** > BATZARRA

# Hezkuntzaren gaineko iritzi trukaketa egingo du EHBEk

## Batzarra eguaztenean da eta ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak daude gonbidatuta

**M.A.** > ARETXABALETA
Euskal Herriak Bere Eskolako kideak oso kezkatuta daude hezkuntzan egiten dabiltzan aldaketak direla-eta. Horren guztiaren gainean hausnartu eta iritzi eta bizipenak trukatzeko, batzarra deitu dute datorren eguaztenerako, hilak 10. Udaletxe zaharrean izango da (18:00) eta ikasleak, irakasleak, gurasoak, hezkuntzako eragileak eta herritarrak gonbidatu dituzte.

**MUGIMENDU INDARTSUA**
Ikasturte berriaren egoera "lehen baino kezkagarriagoa" dela diote EHBEko kideek: dirulaguntzen murrizketak, testuliburuetatik *Euskal Herria* desagerraraztea... Urtarrilaren 16an batzar irekia egin zuten Donostian, hori guztia aztertzeko –zazpi aretxabaletar izan ziren–, eta bi ondorio atera zituzten: Euskal Herriak bere hezkuntza aldarrikatzeko mobilizatu beharra eta hezkuntza eredua garatzeko mugimendu indartsua antolatu beharra.

Horren guztiaren berri emango dute eguaztenean, eta martxoaren 13rako Bilbon antolatutako mobilizazioak iragarri.

## oharrak

DANTZA

**> Santa Ageda neska-mutilak kantuan eta dantzan**

1991n jaiotako Santa Ageda neska-mutilak kalerik kale ibiliko dira gaur, Santa Ageda eguna, kantuan eta eskean. Ilunkeran dantzan egingo dute herriko plazan (19:00); baita domekan ere.

ERRETIRATUAK

**> Zaindariaren egunerako txartelak salgai datorren astean**

Basotxo elkarteko erretiratuek martxoaren 1ean ospatuko duten zaindariaren egunerako txartelak salgai izango dituzte hilaren 7an, 8an eta 9an (11:00-12:00) Basotxon. Bazkaria Baster-Alde jatetxean izango da.

Pausoka
HAUR ESKOLA

2010-2011 ikasturtea
Izena ematea: otsailaren 1etik 12ra arte
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



TALDE EGOKITUAK
• 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA
• 07:30etik 18:00etara
• Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK
• Bertan gertatutako janaria
• Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA
• Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



Txiki txikitatik
jolasten heziz

BELORRIETA 8an GAUDE. Tel.: 943 77 03 77

Maider Otamendi > EAko zinegotzia

# "Eskoriatzak ez du eserleku hori bete gabe egotea merezi; erantzukizun bat daukagu"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

**Agintaldi hasieran EAk hauteskundeetan lortutako bi zinegotziek (Juan Carlos Bengoa eta Karmelo Lezeta) kargua hartu bazuten ere, gutxi iraun zuen egoera hark. Lehenengoak kargua utzi zuen eta gaur arte hutsik egon da eserleku hori. Joan den astean, Maider Otamendi sartu da eserleku hori betetzera, EAren izenean.**



Maider Otamendi, udaletxeko zinegotzien bulegoan. MIRIAN BITERI

**Joan den astean kargua hartu zenuen. Lanerako gertu?**

Bai, ahal dudan neurrian. Nire egoera pertsonala ez da aproposena kargu honi aurre egiteko, bi ume txiki ditut-eta. Dena dela, ahal bezain ondoen erantzungo diot karguari.

**Udala aurretik ezagutzen duzu.**

Hala da. Zortzi urtez egon nintzen, 1999-2003 eta 2003-2007 agintaldietan. Lehenengoan, Euskarako batzordeburu; eta bigarrenean, Kulturakoan.

**Ze asmorekin sartu zara?**

Ahal dudana egingo dut. EAko zinegotzia zena orain H1! taldera pasa da eta EAtik bakarrik nagoenez, denetara ezin izango naiz heldu. Batzordeen egutegia eta ordutegia aztertzen nabil orain, ondoen datorkidanetara joateko. Asmoa dut, gutxienez, Hirigintza eta Ogasun batzordeetara joateko, gai potoloak lantzen direlako eta hala eskatu didatelako. Hortik aurrera, ez dakit zenbatera joan ahal izango naizen; agian, Ongizatera joaten ahaleginduko naiz. Kultura asko gustatzen zait, baina ezin naiz guztietara heldu.

**"Ahal bezain ondoen erantzungo diot karguari"**

**Bestalde, urteak eman ditu EAko eserlekuak hutsik. Zergatik erabaki duzu sartzea?**

Zerrenda batzuetan aurkeztu nintzelako, Eskoriatzako herriarekin erantzukizuna nuelako eta nire estiloa ez delako uko egitea. Hortaz, nire senak aginduta eta senarrarekin eta familiarekin adostuta erabaki dut zinegotzi kargua hartzea. Nire kredentziala iritsi zela jakin nuenean, EAko hainbat kiderekin eta, etxekoekin hitz egin nuen, eta buruari bueltak eman ostean, sartzea erabaki nuen. Eskoriatzak ez du eserleku hori bete gabe egotea merezi, erantzukizun bat daukagu eta aurrera egin behar dugu.

**Zelan ikusten duzu Udala?**

Oraindik ez dut askorik ikusi. Joan den eguaztenean hartu nuen kargua eta hemen nabil, kokatzen, batekin eta bestearekin elkarrizketetan. Dena dela, jende gehiena ezagutzen dut eta ondo konponduko naiz guztiekin.

**Eskoriatzarra izanda, dena dela, jakingo duzu agintaldia zelan doan…**

Gainetik jarraitu dut, gustatzen zaidalako eta ezagutzen dudalako. Egoera ez da idealena, denon gustukoa ez da, baina ahal den ondoen egiten saiatzen garela pentsatu nahi dut. Hobera joateko laguntzea badut, ederto!

> MUSIKA

## Sorkun abeslaria izango da gaur gauean Inkernun

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, Sorkun kantaria egongo da gaur, 23:00etan, Eskoriatzako Inkernu tabernan. Sorkun Errenteriako Sorkunde Rubioren izen artistikoa da. 1990eko hamarkadan famatu egin zen Kashbad taldeko abeslari izateagatik. Jarraian, Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Flitter eta Fermin Muguruzarekin batera abestu zuen, bakarkako lanari uko egin gabe.

> HEZKUNTZA

## Haurtzaroko sexualitateaz jardungo dute martitzenean

Martitzenerako, hilak 9, sexualitatearen gaineko tailerra antolatu du Luis Ezeizak gurasoendako, 18:00etatik 19:30era, ikastetxeko areto nagusian. Hain justu, haurtzaroko sexualitateaz hitz egingo die eta dituzten zalantzak argituko dizkie Arrasateko Sexologia Zerbitzuko Larraitz Arandok. Besteak beste, gorputza ezagutzen eta ume izatetik heldu izatera zelakoa den jardungo dute tailer horretan.



bere ustez



Fernando Lete

## Neguaren ondoren udaberria

*Badituk egunero milaka zalantza, baina sekulan ez dut galdu esperantza*; horrela ekiten zion kantu batean euskal kantari bikote batek. Esperantza gizakion heldulekuеta gordeleku bakarrenetakoa da, esperantza gabe bizitza zailagoa bihurtzen zaigu. Esperantza gerturatzeko nahia eta ekinak bateratzea beharrezkoak ditugu.

Bakearen esperantzari buruz horrela idatzi zuen Saramagok. "Desoreka itzela dago gerraren beharra aldarrikatzen duten indar materialen eta bakearen eskubidea babesten duten indar moralen artean. Baina historian zehar gizaki batzuen borondatea gailendu zaio soilik beste gizaki batzuen borondateari. Bakea posible izango da bakea lortzeko mobilizatzen bagara, nola kontzientzietan nola kaleetan". Bizitzan esperantzaren bideak gorabehera handikoak izaten dira, 2006ko tregua eta bake elkarrizketak itxaropena piztu zuen Euskal Herrian; haiek zapuztean, lurrikara bat bezala itxaropenak lurperatu ziren. Orain, Batasunaren barne eztabaidak eta Altsasuko agerpenak bake prozesu berri baterako esperantzak berpiztu ditu. Tregua garaian Batasunak kaleratutako *Badator Udaberri Berria* oraingoan loratzea espero dugu.

**"Batasunaren barne eztabaidak bake prozesu baterako esperantzak berpiztu ditu"**

**ZERBITZUAK** > NAGUSIAK

# Jangela soziala martxan jarriko dute egunotan

Torresoroan, eguneko zentroa dagoen tokian emango dituzte bazkariak eta afariak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Antzuolako Udalak jangela soziala martxan jartzeko asmoa dauka. Osoko bilkurak dagoeneko onartu ditu arauak; orain, falta dena da menuen prezioak zehaztea. Jangela zerbitzua erabili gura duenak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariarekin harremanetan jarri behar du, 943 78 71 95 edo 943 78 62 84 telefono zenbakietan.

**NAGUSI AUTONOMOENDAKO**

Osoko bilkurak onartutako araudiaren helburua pertsona nagusiendako jangela zerbitzua erregulatzea da.

Jangela zerbitzua pertsona nagusi autonomoendako da; zehatzago esanda, etxean janak prestatzeko zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsona nagusiei zuzendutako zerbitzua da. Hala ere, Karmele Korta Gizarte Ongizate batzordeko teknikariak azaldu du: "Zerbitzua eman daiteke adinaren baldintza bete barik, eskatzailearen baldintzak kontuan hartuta". Baldintza da eskatzailea Antzuolako udalerrian erroldatuta egotea.

**AURREZ ZEHAZTUTA**

Erabiltzaileak jangela zerbitzua noiz erabiliko duen aurrez zehaztu beharko da. "Egunero, edo astean egun batzuetan... aurrez zehaztuta egongo da eskatzaileak noiz erabiliko duen jangela zerbitzua", dio Kortak. Gainera, kontuan hartuta pertsona nagusiei zuzendutako zerbitzua dela, pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako menuak egingo dituzte. Esan bezala, bazkariak eta afariak emango dituzte.

**EGUNEKO ZENTROA**

Antzuolako eguneko zentroak lau erabiltzaile ditu gaur egun. Esan behar da, baina, Bergarako eguneko zentroa obretan dagoenez Bergarako 15 lagun Antzuolan daudela obrak bukatu bitartean.

Jangela zerbitzuarekin, Torresoroako eskaintza zabaldu nahi du Udalak. Gainera, Karmele Kortak azaldu du beste zerbitzu batzuk ere jarriko dituztela martxan: besteak beste, aktibitate tailerrak eta aldi baterako egonaldiak.



JONE LARRAÑAGA

## Alonso eta Cabrera, mus txapeldun

Felix Alonso eta Claudio Cabrera dira Antzuolako mus txapeldun berriak. Sei bikote iritsi ziren Arin jatetxean jokatutako finalera. Sanchez eta Fernandez de Arangiz geratu ziren bigarren; Lezeta aita-semeak, hirugarren; eta Asensio eta Zubikarai, berriz, laugarren. Lau bikoteok Euskal Herriko txapelketarako sailkatu dira.

oharrak

KINTADA

**> 1974an jaiotakoek kintada egingo dute martxoaren 6an**

Hernaniko Iparragirre sagardotegian izango da bazkaria. Eguerdian irtengo da autobusa Antzuolatik eta 20:00etan itzuliko dira. Harremanetarako telefonoa 665 73 65 95 da. Otsailaren 12a baino lehen eman behar da izena.

DIRU-BATZEA

**> Otsailaren 14an diru-batzea egingo dute odol-emaileen elkartekoek**

Otsailaren 14an, Aratuste-domekan, diru-batzea egingo dute odol emaileen elkartekoek. Gainera, eskerrak eman gura dizkiete urtarrilean odola ematera joan ziren guztiei. Odol emaileen elkartekoek esan dute 80 lagun joan zirela; haietatik bi, berriak. Hurrengo odol ematea maiatzean izango da.

> ERRETIRATUAK

### Mozorro lehiaketa egingo dute aurten ere herriko nagusiek

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Aratusteak ospatuko dituzte Antzuolako erretiratuek. Otsailaren 16an, martitzena, egingo dute jaia. Erretiratuen elkartean txokolatejana eta kina jokoa egingo dituzte.

Aratuste-martitzenean mozorrotuta daudenen artean sariak banatuko dituzte; hain zuzen, hiru mozorro onenek eramango dituzte sariak. Erretiratuen elkartekoek dei egin dute mozorro jaian partehartzera animatzeko. Mozorro jaian izena emateko egunak hauek dira: otsailaren 9a eta 10a, martitzena eta eguaztena, 16:00etatik 18:00etara, erretiratuen elkartean.

> KULTURA

### Emakumeak eta lana uztartuko dituen argazki erakusketa

Gizarte Zerbitzuek antolatuta, *Emakumea eta lana etxe barruan eta kanpoan* erakusketa egin gura dute martxoan. Horretarako, argazkiak bildu gura dituzte. Deialdia zabaldu dute emakumeak eta lana gaiak uztartzen dituzten argazkiak udaletxera edo Gizarte Zerbitzuetara eramateko otsailaren 26a baino lehen. Materiala jaso ondoren, argazkiak itzuli egingo dira. Martxoaren 8a aitzakia hartuta egingo dute argazki erakusketa.

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**JENDARTEA** > AIXOLAKO HARRERA ETXEA

# Aixolako zentroari jarraipena egiteko batzordea eratuko dute

Koordinatuta lan egin nahi dute Aldundiak eta Eibarko, Ermuko eta Elgetako udalek

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Eguaztenean 40 lagun inguru elkartu ziren Aixolako zentroari buruzko batzar irekian. Bertan izan ziren, besteak beste, Aldundiko teknikari Iñaki Bengoetxea, Aixola zentroa kudeatzen duen Babesten enpresako Mikel Lizarralde eta Agurtzane Gartzia, Oxel Erostarbe alkatea, udal zinegotzi eta langileak, Aixola auzoko bizilagunak eta Elgetako, Eibarko eta Ermuko zenbait herritar.

**JARRAIPEN BATZORDEA**

Oxel Erostarbe alkateak hartu zuen lehenengo hitza. "Udalak ez du zentro horren gainean inongo eskumenik, baina gure arduratzat jotzen dugu zentroak lege guztiak behar den moduan betetzea, eta jarraipena egingo diogu". Eibarko eta Ermuko udalekin batera jarraipen batzorde bat eratuko dutela jakinarazi zuen. "Zentroari jarraipena egiteko, zalantzak argitzeko, protokolo posibleak zehazteko eta koordinazio lana egiteko. Arduraz jokatzeko unea dela uste dugu", esan zuen. Eta, horren harira, gezurtatu egin zituen asteotan herrian zabaldutako hainbat zurrumurru: "Zentroak ez die herriko tabernariei hilean 4.000 euro eskaini gazte horiei bazkaltzen emateagatik. Gezurra da, halaber, gazte horiek herri eskolara etorriko direnik".

**DIPUTAZIOAK AGINDUTAKOAK**

Herritarrak kezkatuta daude eta horrela agertu zuten bileran. Abenduaren 16an iritsi ziren lehenengo gazteak Aixolara eta gertakariak egon dira ordutik. Garantiak eskatu zituzten. "Ezin dugu batere arazorik egongo ez dela ziurtatu", esan zuen Aldundiko Iñaki Bengoetxeak. "Zuen kezkak eta beldurrak ulertzekoak dira; aurrekariak daude, eta txarrak, gainera. Baina esan beharra dut uneotan ezin direla Aixola eta Endoia konparatu. Nahiz eta profil bereko gazteak izan, Diputazioak aldaketa potenteak egin ditu bere programetan. Aldatu egin ditu zentroaren ezaugarriak, programak, gazteen kopurua askoz ere txikiagoa da, hezitzaileak askoz ere gehiago daude... Eta onartzen dut, guri dagokigu aldaketa horiek guztiak eraginkorrak izango direla demostratzea".

## Hamaika elgetar aste bukaeran Andoaingo piano jaialdian

Urteroko hitzordua iritsi da atzera ere. Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Elgetako 11 pianojotzailek hartuko dute parte Andoaingo V. piano jaialdian: Lorea Larrañagaren hamar ikaslek eta Bergarako musika eskolako beste batek.

Bihar, zapatua, Maialen Alkorta, Mikele Arkarazo, Egoitz Mañarikua, Irati Limon, Unai Andres, Malen Campos eta Ainhoa Monterroso ikasleek –azken hirurak falta dira argazkian– egindako lana erakutsiko dute jaialdian. Biharamunean, Maria Sarasuaren, Ibane Zubiaurreren, Maialen Zubiaurreren eta Maitena Mañarikuaren txanda izango da.

Oso ezaguna da Andoaingo jaialdia; 800 bat ikasle batzen ditu. Andoaingo Bastero kultura etxean egingo dute.



L.Z.

**JAIAK**

## San Roke jaiak indartzeko ekimena

Dirua batzeko hiru zozketa antolatzeko asmoa dute; lehena egin dute

**L.Z.** > ELGETA

San Roke eguna abuztuaren 16an ospatzen da. Aurten, Elgetako bospasei lagun jai horiei bultzada emateko ahaleginean dabiltza. "Indarra galdu dute San Roke kaleko jaiek", azaldu du lantaldeko kide Fernando Oiangurenek. "Ez dugu, oraingoz, guztiz zehaztuta, baina nahiko genuke bazkari bat antolatu eta trikitilari batzuk ekarri".

**DIRUA BATZEKO, ZOZKETAK**

Oraingoz, eta dirua batzeko, zozketak antolatu dituzte. Iñaki jatetxean bi lagunendako afaria zozketatu dute urtarrilean. Hain zuzen, saria 961 zenbakidun txartelari egokitu zaio. Ordezkoa 922 zenbakia da.

> TEILATUAK

### Teilatuko hodiak batera garbitzeko proposamena

Etxeko teilatuko hodiak garbitzeko edo konpontzeko beharra duten herritarrei dei egin die Udalak. Jakinarazi dute elebadore bat eta pertsonala kontratatzeko erabakia hartu dutela. "Etxeko teilatuko hodiak garbitu nahi duten herritarrek udaletxean eman behar dute izena hilaren 15a baino lehen. Udalak eraikin publikoetako teilatu-hodiak garbitzearen kostua ordainduko du, eta izena ematen dutenen artean ordainduko da gainerakoa".

## oharrak

SAN BLASAK

**> Domekan ospatuko dituzte auzoko jaiak Arantzetan**

San Blas eguna eguaztenean izan zen, baina Arantzeta auzoan etzi, hilak 7, ospatuko dute.

Meza entzungo dute domeka eguerdian, 13:00etan, San Blas ermitan. Urtean hildako auzotarren omenezko meza izango da. Urtero legez, txorizo pintxoak eta salda banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Auzoan hamar bat lagun bizi dira gaur egun.

IKASTAROA

**>Martxoaren 6an hasiko da Espaloiko magia ikastaroa**

Otsailerako iragarrita bazegoen ere, martxotik aurrera egingo dute magia ikastaroa kafe antzokian. Zapatuetan egingo dute, 11:30etatik 13:00etara, martxoaren 6an hasita. 12 orduko ikastaroa izango da eta Gasteizko ilusionismo elkarteko Jose Angel Suarezek egingo ditu irakasle lanak.

Prezioa 15 euro da; bazkideendako, 10. Izena ematea ezinbestekoa da.

## frontenis txapelketa

### Domekan jokatuko dira partiduak

Aste bukaera honetan domekan jokatuko dira frontenis txapelketako partiduak, 10:30ean hasita. Bost norgehiagoka izango dira, tartean bat emakumezkoen txapelketakoa eta bestea aurreko asteburuan atzeratutako partidua. Frontoiko ateak zabalik egongo dira partidu horiek ikusi nahi dituzten guztiendako.

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| 1. Asier Osoro-Adrian Gorostiza/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo | 22-25 |
| 2. Iban Retolaza-Alex Cristobal/Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales | 07-25 |
| 3. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Eneko Maguregi-Andoni Elortza | 13-25 |
| 4. Izaskun Ojanguren-Nagore Ojanguren/Nagore Morales-Beatriz Zabala | 25-16 |
| 5. Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 20-25 |
| 6. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | atzer. |

**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK- DOMEKAN 10:30EAN**

1. Asier Osoro-Adrian Gorostiza/Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales
2. Susana Jimenez-Olaia Jimenez/Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia
3. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
4. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga
5. Iban Retolaza-Xabier Ubera/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo



Mendixola baserria. GOIENKARIA

**AZPIEGITURAK** > ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZAK

# E Planaren 161.000 euroak, hiru proiektutara bideratzeko asmoa

Mendixola baserriaren goialdean Udalak egin nahi duen eraikinak berogailu sistema jasoko du

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

E Planari esker jasoko duen dirulaguntza, 160.972 euro, hiru proiektutara bideratu nahi du Aramaioko Udalak. Horietako bat Mendixola baserriaren goialdean egingo duten eraikina izango da. Aipatutako eraikinak 320 metro koadro izango ditu; azaleraren erdia lehen sektoreko ekoizleei laguntzeko bideratuko da eta beste erdia herria hornituko duen berogailu sistema zirkuiturako materiala, biomasa, prestatzeko. Bien bitartean, Udaleko biltegi modura erabiliko dute eraikin berriaren zati bat.

**HIRU PROIEKTU**

Aramaioko Udalak deialdi irekia egin zuen herritarrek euren proposamenak egin zitzaten. Hain zuzen, 25 proposamen jaso zituzten udaletxean. Azkenean, hiru onartu zituen udalbatzak joan den asteko osoko bilkuran, aho batez. Aipatutako eraikin berria egiteaz gainera, Oleta auzoan suaren kontrako azpiegiturak hobetzea eta Goiko-errotako fosatik datozen ur-zikinak bideratzeko azpiegitura egitea dira Udalaren asmoak.

Onartutako hiru proiektuak Madrilera bidali dituzte eta erantzunaren zain dago Udala. Gobernu zentralak onespena emanez gero, lehenbailehen hasiko dira lanok. Udaleko iturrien arabera, gauzak bide onetik badoaz baliteke aipatutako lanak uda aldera hastea.



Semaforoa Gatzagako sarrera nagusian. M.A.

**LEINTZ GATZAGA** > ERREPIDEAK

# Semaforoak jarri ditu Foru Aldundiak herriko bi sarreretan, hilabeterako

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Semaforoak daude Gatzagatik pasatzen den errepide nagusian martitzena ezkero. Foru Aldundiko Errepide Saileko ordezkariek jarri dituzte herriko bi sarreretan eta hilabete egongo direla iragarri dute, "proba egiteko".

**LARANJA KOLOREAREKIN**

Orain dela hilabete batzuk Udalak eskatu zion Aldundiari herriko bi sarrerak egoki zitzala automobilekin egin beharreko sarturtenak seguruagoak izateko –iaz baserri batzuetara doazen bide sarrerekin egin bezala–. Gainera, goiko sarreran autobus geltokia dago eta oinezkoek ere gurutzatzen dute errepide nagusia. Hori kontuan hartu eta Aldundiak semaforoak jarri ditu bi sarrera nagusietan. Hiru jarri dituzte: bi Gasteizera doazenendako, herrira sartzeko dagoen bihurgunearen aurretik eta ondoren; eta hirugarrena Eskoriatzara bidean, autobus geltokia baino zertxobait lehenago.

Semaforoek laranja kolorea dute uneoro eta gidariei jakinarazi gura diete abiadura murrizteko eta kontu handiarekin pasatzeko tarte horretatik. Helburua da herrira doazen autoak seguruago eta, era berean, lasaiago sartzea eta irtetea.

Hilabetez egongo dira semaforoak Gatzagako errepidean eta, epe horren ondoren, neurriaren balorazioa egingo dute aditue.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
URTARRILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK
Umeentzako euskarazko jostailuak
Ikastolen Elkartea
IRABAZLEA
Mikel Eguren Laskurain
Bergara

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.
PAMIELA
IRABAZLEA
Loli Zeziaga Bengoa
Arrasate

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET
IRABAZLEA
Bilaitz Marzan Usandizaga
Bergara

GOIENAKO PENDRIVE-A
Goienako pendrive bat.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
IRABAZLEA
Unai Bergaretxe Leibar
Arrasate

SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.



**MENDIA** > NEGUKO JARDUERAK

# Neguan, kontu handiagoz

Besaideko eskiatzaileak, Vignemalera bidean, iaz.

WWW.BESAIDE.ORG

Geroago eta gehiago joaten dira neguan mendira kirola egitera: mendiko eskia, eskalada...

Kirol horietan esperientzia dutenek GOIENKARIAri adierazi diote zer izan behar den kontuan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mendiko istripuei dagokienez urte gogorra izaten ari da. Egun gutxi pasa dira Santutxuko (Bilbo) bi anaia Palentzian, Curavacas mendia eskalatzen ari zirela istripu larria izan zutenetik. Aste gutxi Pirinioetan, Cullarada tontorrean hiru eskiatzaile nafar elurpean geratu zirenetik, eta aste barruan ere istripu larriak izan dira Pirinioetan.

Hilabete hauek mendira joateko sasoi ederra dira, eta geroago eta gehiago dira horretara animatzen direnak. Baina behar den moduan ibiltzeko neguan mendian ibiltzea zer den ondo dakiten hainbat lagunengana jo du GOIENKARIAk.

**ESPERIENTZIADUNAK**

Mendiko istripuen aurrean askotan entzun ohi den esaldia da istripua izan duten horiek esperientziadunak zirela. Hasteko, mendia berez da kontuz ibiltzeko tokia, zorte txarrak ere nahi baino protagonismo handiagoa izan dezake, baina normalean istripu baten atzean akats bat dago, deskuidu bat edo txarto hartutako erabaki bat.

Neguan handitu egiten dira mendian hala-moduz ibiltzearren aurki ditzakegun arriskuak; eta hasteko, esperientziadunak arrisku horiek ondo neurtzen ditu. "Ondo ibiltzeko ezinbestekoak dira lekuaren gaineko informazio zorrotza eta eguraldi iragarpenen berri izatea, material aproposa erabiltzea eta zentzuz jokatzea", azaldu du Aitor Kortabarriak, Besaideko ordezkari eta mendiko gidari izandakoak. "Mendiko materialarekin ez dago arazorik, normalean jendeak merkatuan dagoen onena erabiltzen duelako, nahiz eta horrenbesterako beharrik ez izan. Baina badaude zaindu beharreko beste arlo batzuk, eta garrantzitsuena da ibili behar garen ingurua oso ondo ezagutzea".

Iban Letamendi oñatiarrak urteak daramatza mendiko eskia egiten –Euskadiko txapelketan bigarren sailkatu da Aitor Otxoarekin batera–: "Nik aste barruan egunero ikusten dut, Interneten, asteburuan joan behar dugun zona horretan ze eguraldi egiten dabilen. Zenbat elur bota duen, zelako elurra den... Eta kondizio horien arabera erabakitzen dugu mendira sartu behar dugun ala asteburu horretan eski pisten ondotik ibili behar dugun".

Letamendik dioenez, lasterketetan lehiatzen diren eskiatzaileen artean askotan eztabaidatu duten kontua da mendiko istripuena: "Elur-jausiak egoteko 4ko arrisku-maila dagoenean onena da ezagutzen ez den mendi horretara ez joatea [Arrisku maila 1etik 5era neurtzen da, eta 5 da arriskutsuena]. Hori ere bada esperientziaduna izatea; hau da, igo nahi dugun mendi jakin bat beste sasoi baterako uzten jakitea. Esaterako, ni ez nintzateke sasoi honetan Anetora joango, elur mordoa badago. Hobe da apirilean joatea, normalean elur gutxiago egoten delako".

Kortabarriaren ustez, esperientzia ibili behar dugun lekuaren ezagutzatik hasten da: "Mendi ingurua ondo ezagutzea ezinbestekoa da. Izan ere, 4ko arrisku maila horrek seguruenik ez du Pirinio osorako balioko. Hau da, leku batzuk bosteko arrisku mailarekin ere seguruak dira, mendiaren eta inguruaren ezaugarriek seguru egiten dutelako, eta beste leku batzuetan hiruko arrisku mailarekin ere kontu handiz ibili behar da".

**ZER DA ESPERIENTZIA IZATEA?**

Galdera hori bota du Kortabarriak: "Mendian eskiatzen ibiltzen diren gehienek badakite arvak [Elurretan harrapatuta dagoena bilatzeko gailua] erabiltzen, baina esperientzia izatea hori baino askoz gehiago da. Arriskua antzematen jakitea da esperientzia izatea, leku hori ondo ezagutzea, elur geruzak ondo bereiztea, *katak* egiten jakitea [Azpian ze elur geruza dagoen jakiteko egiten den ariketa]. Ez pentsa leku bat hiruzpalau aldiz joanda ezagutzen denik. Ez, leku bat bertan bizi direnek ezagutzen dute ondo. Horregatik, kontuz esperientzia dugula pentsatzearekin. Nik behin baino gehiagotan egin dut atzera pentsatzen baldintza txarrak izango genituela, eta gero jakin oso ondo zegoela dena; beste batzuetan, ostera, baikorregia ere izan naiz, eta gero konturatu ederrean sartuta geundela".

**IZOTZ ESKALADA**

Neguan eskalatzen ibiltzen direnak ere Internetez baliatzen dira informazioa jasotzeko: "Foroetan azaltzen du jendeak eskalatzekoak diren horma jakin batzuk ze egoeratan dauden, baina, noski, ez da horma guztien gaineko informaziorik egoten. Kontua da Europako beste leku batzuetan ez bezala, Pirinioetan kondizioak oso aldakorrak direla. Tenperatura aldaketa handiak egoten dira egun batetik bestera, eta atzo ondo zegoen izotz horma baliteke bi egun barru txarto egotea. Gerta daiteke, baita ere, hormaren behealdea ondo egotea eta gora iristerakoan baldintza kaskarrak topatzea. Hor ere esperientzia da garrantzitsua, eta horma ondo ezagutzea".



Izotz eskaladako saioa, Bielsan.

IBAN TOLEDO

**KOMERTZIALKI, MESEDE TXIKIA**

Kortabarria eta Letamendi bat datoz komertzialki ere ez dela *saltzen* mendian ondo ibiltzearen kultura: "Denda batera joanez gero, badirudi pala bat eta arva gailuak erosita eginda dagoela dena, baina mendian seguru ibiltzeko hori baino gehiago behar da: taldeka joan, sokak eraman, batetik bestera distantzia mantendu...", esan du Letamendik.

Kortabarriarendako, gainera, jendea errazegi *berotzen* da: "Aldizkarietan ikusten ditugu eskalatzaileak muturreko baldintzetan, eguraldi oso txarrarekin... Argazkia esaten ari zaigu baietz, posible dela horrela ibiltzea, eta jendeak sinistu egiten du. Eta istripuak etortzen dira gero, edo *eskapada* ederrak".

MENDI TALDEEK, ZER?

## Materiala eskura izan, eta ikastaroak sustatzen dituzte

Besaide mendi elkarteko presidente Roman Martinezek azaldu du geroago eta zale gehiago dituzten neguko kirol jarduera horien aurrean zelan jokatzen duen mendi elkarteak: "Elkarteak antolatzen duen neguko jardun *konprometituena* mendiko eskia da, eta lehenengo irteerarekin batera urtero ikastaroa antolatzen du Besaidek [Arvaren erabileraren gainekoa eta mendiko segurtasun tekniken gaineko ikastaroa]. Gero, urtean beste hiru irteera antolatzen ditugu eta baldintza okerrak baldin badaude bertan behera geratzen dira, edo ibilbidea aldatzen da leku seguruen bila. Bestetik, elkartean, segurtasun mailako materiala alokatzen dugu –kranpoiak, palak, arvak eta pioletak–, eta hauen erabilpena elkartetik antolatutako ekintzetarako mugatua dago". Bestalde, federazioak antolatzen dituen ikastaroen berri ere ematen dute.

*berak merezi duelako...*






Etro lurrina
**ALGA LURRINDEGIA**
Bergara ❤ Ibargarai 10 ❤ 943 76 00 85



Lentzeria
**BEA LENTZERIA**
Arrasate ❤ Iturriotz 4 ❤ 943 79 12 05



Facet diamanteak
**ETXEBERRIA BITXITEGIA-ERLOJUTEGIA**
Bergara ❤ Bidekurutzeta 16 ❤ 943 76 23 94




Passionata lentzeria
**IRATXO MERTZERIA**
Bergara ❤ Telesforo Aranzadi 2 ❤ 943 76 00 79



Zenspirit jantziak
**JOLAS OPARIAK**
Bergara ❤ Barrenkalea 27 ❤ 943 76 46 48




Missing Johnny jantziak
**KAPIKUA**
Arrasate ❤ Doctor Bañez 4 ❤ Tel.: 943 79 19 94



Oparitu edertasuna eta osasuna %10eko deskontua
**LIRAIN ESTETIKA ZENTROA**
Arrasate ❤ Bixente Ferrer 1 ❤ 943 79 52 17



Izarraitz Aloñako mutilak *bizirik* daude oraindik, joan den astean irabazteko gauza izan ziren-eta. GOIENKARIA

**ESKUBALOIA** > LEHEN TERRITORIAL MAILA

# Soraluze BKE estutasunetan jarri nahi du Izarraitz Aloñak

## Bergararrek sei partidu irabazi dituzte jarraian, eta Aloña Mendikoek bolada hori eten nahi dute

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Lehen territorial mailan derbia jokatuko dute bihar (16:00) Izarraitz Taberna Aloña Mendik eta Soraluce BKEk, Zubikoan. Sailkapenak argi asko erakusten du egoera erabat ezberdinetan dauden bi talde direla: mahoneroak gozatzen (20 puntu) eta txantxikuarrak sufritzen (6 puntu).

Sailkapenean bigarren lekuan dago Bergarako taldea eta Oñatikoa kategoria ez galtzeko borrokan, sailkapeneko azken lekuan. Hala, bistan da biharko derbirako Josetxo Muniategiren mutilak direla faborito: "Baina adi egon behar dugu, Aloñako mutilek %150 emango dute-eta. Bi taldeon artean oso harreman ona dugu, baina neurri berean ondoko bizilaguna gertu-gertutik zaintzen dugu". Azken sei partiduak irabazi eta gero, Muniategik ez du hanka-sartzerik nahi: "Izan ere, horrelako partiduetan dena ondo egin nahi izaten da, eta horrelakoetan posible da itsutzea eta dena ondo egin beharrean dena txarto ateratzea".

**OÑATIKOEK URTE GOGORRA**

Bestalde, Benitoren mutilendako urte gogorra ari da izaten, baina joan den astean oñatiarrek Irungo taldearen aurrean erakutsi zuten bizirik daudela (25-29), eta ez dutela amore emateko asmorik: "Talde gaztea dute, eta hori igarri egiten da. Nik dudan esperientziagatik badakit gazteak nagusiekin elkartzen diren lehenengo urtea trantsiziokoa izaten dela, normalean urte txarra. Gero, bigarren urtean hasten dira emaitzak etortzen".



AKE TENIS TALDEA

## Eneko Ugalde eta Julian Etxabe, irabazle

Domekan jokatu zituzten Santamasetako tenis txapelketako finalak. Gazte mailako partiduan Julen Etxabe hasi zen seta irabazten, baina Danel Gartziak estutu egin zuen, eta ia ezustea eman. Txapela, baina, Etxaberendako izan zen (6-4, 4-6, 6-3). Helduetan, berriz, aspaldian ibarrean tenisean jaun eta jabe diren Jorge Aranes eta Eneko Ugalde bergararrak izan ziren aurrez aurre. Final estuan, *tie-break*-ean nagusitu zen Ugalde (3-6, 6-3, 7-6 (7-5). Argazkian, Aranes eta Ugalde.

**PIRAGUISMOA**

## Beti Busti taldekoak, dominaz beteta

**X.U.** > BERGARA

Euskadiko kopako lehenengo jardunaldian –lau egingo dituzte– hiru domina eskuratu dituzte Bergarako Beti Busti taldeko mutilek. Taldeka egindako lanagatik brontzea irabazi zuten eta bakarka urrea eskuratu zuen Ugaldek eta zilarra Lizarraldek.

Txapelketa Pau ibaian egin zuten, Sant Pe de Bigorren, eta bertan Beti Bustiko sei piraguista lehiatu ziren.

**URREA, ZILARRA, BRONTZEA**

Seniorretan Iraitz Artola 11. izan zen, gazte mailan Iñaki Usabiagak meritu handiko seigarren postua lortu zuen eta kadetetan Aritz Gimbert zazpigarrena izan zen.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Real Murtzia-Reala.
Zapatua. 18:00. Murtzia.

**Hirugarren maila**
Eibar-Aretxabaleta
Domeka. 12:30. Unbe.

**Gazteak, liga nazionala**
Aretxabaleta-Sestao River
Zapatua. 17:45. Ibarra

**Ohorezko erregionala**
Aloña Mendi-EHU Vasconia
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Idiazabal
Zapatua. 16:15. Agorrosin.
Beti Gazte-Mondra
Domeka. 16:00. Lesaka.

**Erregional preferentea**
Ilintxa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Bikuña.
Soraluze-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Ezozia.

**Lehen erregionala, igoera**
Lengokoak-BergaraB
Zapatua. 16:00. Donostia.
Mondra-Martutene
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**Lehen erregionala, kopa**
Eibartarrak-UDA Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

**Ohorezko gazteak, kopa eta jaitsiera**
Mondra-Lagun Onak
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Sporting de Herrera-Aloña
Zapatua. 15:30. Donostia.

**Gazteak, igoera fasea**
Aretx.B Arizmendi-Vasconia
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Gazteak, kopa**
Urola-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Aretx.Arizmendi-Añorga
Domeka. 11:45. Ibarra.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak, kopa eta jaits.**
Aloña Mendi-Tolosa
Zapatua. 12:00. Azkagain.

**Kadeteak, igoera fasea**
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 13:00. Mintxeta.
Real Union-Arrasate
Domeka. 11:45. Irun.

**Kadeteak, kopa**
Aretxabaleta-Bergara
Zapatua. 10:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunen f.**
Hernani-Aretx.Arizmendi
Domeka. 10:30. Hernani.
Zarautz-Arrasate
Domeka. 12:00. Zarautz

**Infantilen ohorezko kopa**
Aloña Mendi-Aurrera Ond.
Zapatua. 10:00. Azkoagain.
Anaitasuna-Bergara
Domeka. 18:30. Azpeitia.

**Infantil, parte hartze kopa**
Leintz Eskola Kirola-Eibartar.
Zapatua. 11:00. Almen.

**Infantil, txapeldunen fasea**
Sporting Her.-Arrasate
Domeka. 12:00. Herrera.

**Infantil txikien kopa**
Bergara-Tolosa
Zapatua. 18:00. Ipintza
Touring-Aretx. B Arizmendi
Zapatua. 10:30. Errenteria.

**Infantil txiki, parte hartze txapelketa fasea**
Kostkas Miren-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Donostia.
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Infantil txiki, parte hartze kopa**
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Alebinak**
Elgoibar-Bergara
Domeka. 09:30. Azkoagain.
Eibar-Aretxabaleta
Domeka. 09:30. Azkoagain.
Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka. 11:00. Azkoagain.

**Emakumezkoak, igoera**
Mondra-Intxaurdi
Domeka. 16:00. Mojategi.

**Emakumezkoen kopa**
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:00. Azkoagain.

**Emak. F11 kadete, txapeld.**
Arizmendi-Añorga
Zapatua. 12:30. Almen.

**Emak. F11 kadete, kopa**
Anaitasuna-Mondra
Domeka. 15:00. Azpeitia.

**Emak. F8 kadete, txapeld.**
GT Mariño-Bergara KF8
Zapatua. 17:30. Altamira.

**Emak. F8 Kadete, kopa**
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Deba.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskadiko Txapelketa**
Kanikas Infrac.-Eskoriatza
Zapatua. 16:15. Barakaldo.

**Gipuzkoako bigarren mai.**
Gure Txokoa-UDA Orly
Gaur. 20:45. Bera.

**Gazteak**
Lauburu-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Gamon inform.-Eskoriatza
Zapatua. 11:30. Errenteria.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
MU-Viajes Marfil
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Maila autonomikoa**
Aloña Mendi-Santurtzi
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Gip. senior gizonezkoak**
Soraluce BKE-Oiartzun
Zapatua. 16:00. Labegarai.

**Gip. senior emakumezko.**
Eskoriatza-Bareak
Gaur. 20:15. Intxaurtxueta.

**Gazte gizonezkoak, partai.**
Soraluce BKE-Andraitz
Zapatua. 12:30. Bergara.
MU B-Oiartzungo Sask.
Domeka. 11:45. Musakola.
Aloña Mendi-BKL
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazte emakumez. Errend.**
Eskoriatza-Premank BKL
Gaur. 17:30. Intxaurtxueta.

**Kadete emak. Partaidetza**
Andraitz-Eskoriatza
Gaur. 18:30. Legazpia.
Eskoriatza-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Intxaurtx.
Hierros Mavi-Arizmendi Esk.
Domeka. 12:15. Urretxu.
Soraluce BKE-Andraitz
Domeka. 12:15. Labegarai.

**Infantil gizonezkoak**
Servimasa BKE-Lezo
Zapatua. 12:30. Labegaraie.
LEK-Oiartzungo saskilag.
Zapatua. 12:00. Musakola.

**Infantil emakumezkoak**
Lasarte-LEK Arrasate
Zapatua. 12:00. Lasarte.
Larramendi-Soraluce BKE
Zapatua. 11:00. Donostia.
LEK Eskoriatza-Pasaia
Zapatua. 12:00. Musakola.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Romo-Ford Mugarri Arras.
Domeka. 10:15. Areeta.

**Euskadiko senior emaku.**
Zuazo-Verkol Aloña
Domeka. 10:45. Barakaldo.

**Lehenengo territoriala**
Izarraitz Aloña-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Bigarren territoriala**
Donibane-Arrasate
Domeka. 12:00. Pasaia.

**Federazio saria**
Katilu-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Legazpi.
Bergara Sor.-Elgoibar
Zapatua. 18:30. Labegaraiet.
Verkol Aloña-Amaña
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Ereintza-Citroen Chapime
Zapatua. 19:00. Errenteria.

**Foru Aldundiko saria**
Euskalduna-Bergara Sor.
Domeka. 12:00. Zarautz.
Talleres Chapim.-Zalla
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Ereintza-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Errenteria.

**XAKEA**

**Euskadiko txapelketa**
Hoberena-Arlutz Aretxabale.

**Gipuzkoako preferentea**
Arrasate San A. A-Gros B

**Gipuzkoako lehen maila**
Arrasate San And. B-Zarautz

**Gipuzkoako bigarrena**
Arrasate C-Alfil B
Bergara-zaleak-Idiazabal

**ERRUGBIA**

**Euskadiko txapelketa**
Kanpanzar ART-Durango RT
Zapatua. 16:30. Iturripe.

**Gazteak**
Zarautz RT-Durango RT
Zapatua. 12:00. Azti.

**Kadeteak**
Irun RT-Durango RT
Zapatua. 12:00. Plaiaundi.

**Infantilak**
Gipuzkoako txapelketa
Domeka. 10:30. Anoeta.

**Alebinak**
Gipuzkoako txapelketa
Domeka. 10:00. Hernani.

**PILOTA**

**Aretxabaletan**
Gaur, 19:30ean hasita:
Aretxabaleta-Ataun
Aretxabaleta-Antiguako
Arrasate-Hondarribia.

**Bergaran**
Gaur, 20:00etan hasita:
Bergara-Alde zaharra.
Zapatua. 16:00etan hasita:
Atxurbide2-Oiarpe1
Bergara1-Bergara2
Zestoa-Intza1
Bergara3-Bergara4
Lapke-Atxurbide

**Antzuolan**
Gaur, 20:30ean hasita:
Olalde-Endaiarrak

**Eskoriatzan**
Zapatua, 17:00etan hasita:
Eskoriatza-Alde zaharra
Eskoriatza-Hernani
Eskoriatza-Lapke



> RUPER ORDORIKA
'Haizea garizumakoa' lana aurkeztuko du > 32



> PIANO JAIALDIA
Bailarako 80 bat gaztetxo izango dira Andoaingo jaialdian > 33

> MARIA FAGAN
Mery May izena darabil Maria Fagan arrasatearrak musikari moduan jarduteko. 'Dreams' diskoa aurkezten du gaur > 34



# Jostailu gozagarriak

**EROTIKOAK**
Emakume Txokoak eta Udaleko Sexologia Zerbitzuak jostailu erotikoen tailerra antolatu dute

**BI SAIO**
Ikastaroa hilaren 19an eta 26an, 18:00etatik 21:00etara, Arrasateko Emakume Txokoan

**EMAKUMEENDAKO**
Lotsak, desioak eta fantasiak aztergai izango dituzte

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Emakume Txokoak eta Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak jostailu erotikoen tailerra antolatu dute. Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, emakumeei zuzendutako ikastaroa da, elkarrekin erotismoa jorratu eta esperientziak trukatzeko. Larraitz Arando Sexologia Zerbitzuko arduradunak Ubane Maderarekin jardun zuen gai horretaz eguaztenean Arrasate Irratian, *Igo autobusera!* irratsaioan.

Sexologia Zerbitzuak eta Emakume Txokoak horrelako ikastaro bat antolatzen duten lehen aldia da eta, Larraitz Arandoren esanetan, ez du zerikusirik izango azkenaldian modan diren *tuppersex* izeneko emakumeen bilerekin. Merkatuan diren produktuak aurkeztu eta haien gaineko azalpenak ematen dituzte horrelakoetan. Arrasaten antolatu duten ikastaroan, baina, haratago joan nahi dute. Larraitz Arandoren hitzetan: "Merkatuak eskaintzen ez dituen bestelako objektu eta proposamenak aztertuko ditugu. Jostailuen bitartez sexualitatearen eta gure barnearen arteko harremana lantzea da helburua, emakumeondako espazio propioa sortuta eta gure alderdi erotikoaren esperientziak elkartrukatuta".

**IRUDIMENA LANDU**

Nobedadeetako bat hauxe izango da: ikastaroko partaideek eurek egingo dituzte jostailuok. Ez dituzte ohiko kontsoladoreak, bola txinatarrak edo bestelakoak erabiliko. Larraitz Arandok hau dio: "Gure etxean, eskura ditugun materialekin hainbat gauza egin daitezke, eta irudimena lantzea da helburuetako bat... Etxeko hainbat tresnari erabiltzeko modu berriak topatzeko aukera badago... Bide batez, sexualitatearen inguruan mintzatuko gara, autoezagutza eta gozamenerako erabiliko ditugun dinamiken bitartez. Tailerra aktiboa eta parte-hartzailea izango da eta gauza askorik aurreratu nahi ez ditugun arren, *tonbola* estiloko zerbait egingo dugu eta mugak, lotsak, desioak eta fantasiak trukatuko ditugu. Autoezagutza, sexualitatea, jolasa eta gozamena izango dira ikastaroko gakoak". Arrasateko emakumeak parte hartzera animatu ditu Arandok: "Askotan sentitzen dugun hori normala ote den galdetzen diogu gure buruari, edo beste hori egitean gaizki sentitzen gara. Eta esperientziak lagunekin, albokoarekin konpartituta, gauza horiek guztiz legitimoak direla ikusten dugu. Azken baten, errealitateak konpartitzeko gune izan nahi dugu, hiruzpalau jostailu eginda, ezagutza berria jasota eta ustezko mito batzuk (film pornografikoetan ikusten direnak, adibidez) gure errealitatearekin kontrajarrita".

**IZENEMATEA ZABALIK**

Ikastaroa otsailaren 19an eta 26an egingo dute, 18:00etatik 21:00etara, Emakume Txokoan. Izenematea 6 euro da ikasle eta langabeendako eta 9 euro gainerakoendako. Izena emateko epea hilaren 11ra arte dago zabalik.



Ikastaroko partaideek eurek egingo dituzte jostailuok.
Ez dituzte ohiko kontsoladoreak edo bola txinatarrak erabiliko.

## Hainbat ikastaro Emakume Txokoarekin

Emakume Txokoaren Jabetze Eskolaren barruan kokatzen da jostailu erotikoen tailerra. Emakumeendako gune berezia sortu nahi du Jabetze Eskolak: ekarpenak berreskuratzeko eta baloratzeko; elkarrengandik ikasteko; harremanak bultzatzeko; pertsonalki eta kolektibo modura indartzeko... Jostailu erotikoena ez ezik, beste hainbat ikastaro iragarri dituzte: antzerkiarena atzo hasi zen; *Zein da Simone de Beauvoir-en beldur* izenburukoa otsailaren 10ean hasiko da; *Emakumeak euskal kulturan eta jendartean*, hilaren 25ean; eta *Grafikoki esparru publikoa aktibatzen*, martxoaren 12an. Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

**MUSIKA** > RUPER ORDORIKA

# Ruper Arrasateko Amaia antzokian, bihar

## 20:00etan hasita, 'Haizea Garizumakoa' diskoa aurkeztuko du; sarrerak 10 eurotan daude salgai

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Ruper Ordorika oñatiarrak azken laneko kantuak ekarriko ditu Arrasateko Amaia antzokira bihar, zapatua, 20:00etan. *Haizea garizumakoa* diskoko doinuek hartuko dute Amaia.

Kontzerturako sarrerak dagoeneko salgai daude *www.generaltickets.com* atarian, eta baita Amaia antzokian bertan ere, antzokia zabalik dagoenetan. 10 euroren truke erosi ahal dira sarrerak.

**RUPER ETA TALDEA**
Amaia antzokiko agertokian Ruper eta haren taldekideak egongo dira: Arkaitz Miner, gitarra, mandolina eta biolina; Lutxo Neira, baxua; eta Hasier Oleaga, bateria.

Azken urteotan oñatiarra kultuko kantari bihurtu da askorendako, eta, modu horretan, erreferente da euskal kantagintzan. Duda barik, ohorezko lekua dauka euskal kantagintzan Ruperrek.

**'HAIZEA GARIZUMAKOA'**
Azaroan aurkeztu zuen oñatiarrak azken lana: *Haizea garizumakoa*. Ia disko osoa uda aurretik grabatuta zeukan; ondoren, apainketa lanak etorri ziren. Betiko lagunekin New Yorken grabatu zuen diskoa Ruperrek.

Oso disko zaindua da aipatutakoa; denbora izan dute diskoa egiteko eta aukeraketa ona egin dutela argi nabari da diskoa entzuterakoan. Melodia iradokitzaileak eta bizitzaren zentzuaz beteriko abestiak eskainiko ditu Amaia antzokian Ruperrek. Beti bezala, kantatzeko era zuzen eta erakargarriarekin.

12 abestiz osatutako diskoa da, eta era berean oñatiarraren 12. diskoa da *Haizea garizumakoa*. Aipatzekoa da Mikel Laboari eskaini dion abestia: *Sekulabelardiko kantaria*. Hurrengo kontzertua martxoaren 5ean egingo du, Bilboko Kafe Antzokian.

HURRENGOAK

### Barrence Whitfield eta Petti, Amaian

Hurrengo kontzertuei begira jarrita, otsailaren 27an, zapatua, Amaia antzokiko *hall*-ean eskainiko dute kontzertua Barrence Whitfield eta Petti musikariek.

Biek batera baina talde barik aurkeztuko dute elkarrekin atera berri duten diskoa. Whitfield Bostongoa da, eta Petti Berakoa. Esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dituzte; baita ingelesa eta euskara ere. Baina biak lotzen dituena rock-and-rolla eta musikarekiko gustua da. Udan grabatu zuten diskoa Pettik eta Whitfieldek: bost abesti Pettik sortu ditu eta beste bost Whitfieldek aukeratutakoak dira. Dantzarako abestiak eta folk doinuak batzen dituen diskoa aurkeztuko dute Amaiako *hall*-ean. Beti bezala, sarrerak Amaian bertan eta *www.generaltickets.com* atarian.


Ruper Ordorika. AKEITA

**TELEBISTA** > ETB

# Udaberrian estreinatuko dute Mireia Gabilondoren 'Mugaldekoak' telesail berria

## Bergararrak zuzendari eta aktore lanak egingo ditu; gainera, 'tv movie' bat ere egingo dute

A.E. > BERGARA
Historian atzera egingo dugu *Mugaldekoak* telesailarekin. Mireia Gabilondo bergararra ibili da zuzendari eta aktore lanetan, eta nahi dute udaberrian estreinatzea. II. Mundu Gerra garaian Euskal Herrian girotutako fikziozko lana da *Mugaldekoak*; hain zuzen ere, 40ko hamarkadan. Istorioaren ardatza *Comette sarea* izango da.

**NAZIOARTEKO SAREA**
II. Mundu Gerran Europako lerroetan jausten ziren hegazkin gidari ingelesak euskaldun mugalarien laguntzaz beren jatorrizko herrietara bidaltzeko eratu zen nazioarteko sarea izan zen *Comette sarea*. Era berean, eta betiere gerra osteko giro hartan, herrixka bateko familia baten eta bertako herritarren istorioak azalduko dituzte.

**TELESAILA ETA 'TV MOVIE' DELAKOA**
Bi eskaintza desberdin aterako ditu ETBk: *tv movie* formatuko filma eta 13 ataletako telesaila.

Filma Fernando Bernues-ek eta Mireia Gabilondok zuzendu dute eta telesaila Gabilondok berak, Eneko Olasagastik eta Carlos Zabalak. Aktore protagonistak Mireia Gabilondo eta Isidoro Fernandez dira eta eurekin batera, besteak beste, Sara Cozar, Iñaki Beraetxe eta Matxalen de Pedrok hartu dute parte.

Lehenengo aldia da ETBk historian girotutako telesail bat egiten duena.

**ANTZERKIA** > OÑATIN

# Gorputz espresioa lantzeko ikastaroa egingo dute

## Otsailaren 9an hasiko dute ikastaroa; Errekalde herri eskolan izango da

A.E. > OÑATI
Marisa Fassi irakasleak gidatuta, gorputz espresioa lantzeko ikastaroa egingo dute Oñatin otsailaren 9tik aurrera. Martitzenero elkartuko dira, Errekalde herri eskolan, bost astez jarraian. Ordutegia: 18:30etik 20:00etara.

18 urtetik gorako lagunei zuzendutako ikastaroa da. Helburua, irakaslearen esanetan, gorputzari berba egin eta komunikatzen uztea da. Eskolak gaztaniaz izango dira.

**KOMUNIKATZEKO GOGOA**
Ez da beharrezkoa antzezteko gaitasun berezia izatea. "Behar den bakarra komunikatzeko beste bide batzuk bilatzeko gogoa da", dio Fassik. Parte hartzeko, 666 640 786 telefonora deitu edo *marisafassi@hotmail.com* helbidera idatzi.



HOTEL JATETXEA SANTA ANA
Jangela • 12 logela
Suite logela bat • Bilera gela • Haur parkea
Aparkaleku pribatua • Terraza • Barra • Menu bereziak • Karta Errazioak • Bokatak
Ezkontza, despedida eta kintoen bazkarientzat leku aproposa.

Etxerako aurrez prestatutako jakiak prestatzen dira
Uribarri 37 ( Udala bidean ) • Tel.: 943 79 49 39 • Arrasate

**MUSIKA** > PIANO JAIALDIA ANDOAINEN

# Laurogei bat gaztetxok osatuko dute Debagoieneko ordezkaritza, bihar eta etzi

Bergara, Arrasate, Oñati, Elgeta eta Eskoriatzako piano-jotzaileek hartuko dute parte jaialdian


Iazko jaialdian Arrasate ordezkatu zuten neska-mutikoak. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Euskal Herri osoko 18 urtetik beherako piano-jotzaile gaztetxoak Andoainen elkartuko dira aste bukaeran. Eta, beraz, etorkizuneko piano-jotzaileen topagune bihurtuko da Andoain, jaialdiaren bosgarren edizioan. Izan ere, aurten 876 ikaslek hartuko dute parte, urtez urte jaialdia sendotzen ari den seinale.

Eta, noski, Debagoienak ere izango du ordezkaritza. Izan ere, lurogei bat debagoiendarrek eman dute izena Andoaingo piano jaialdian parte hartzeko. Ibarreko bost herrik hartuko dute parte: Bergara, Arrasate, Oñati, Eskoriatzak eta Elgetak. Hala, herri horietako musika eskoletako piano ikasleek ikasitako piezak taularatu beharko dituzte Andoaingo Bastero kulturgunean; bihar eta etzi izango dira emanaldiak.

Esandako moduan, jaialdirako parte-hartzea librea da 18 urtera arteko piano-jotzaile guztientzat. Jaialdiak bi modalitate ditu: piano bakarlaria eta pianoa lau eskutara –bikoteka–. Bestalde, hiru maila izango ditu, adinaren arabera: A mailan 11 urtera artekoak, B mailan 14 urtera artekoak eta, azkenik, C mailan 18 urtera artekoak. Epaimahaiak honakoa baloratuko du, batez ere: adierazkortasuna, estiloa, jotzeko teknika, soinuaren kalitatea eta erritmoaren erregulartasuna.

**LEHIA BAINO ASKOZ GEHIAGO**

Txapelketa izango da; hau da, gaztetxoak euren onena ematen saiatuko dira. Hala, pianoa ondoen jotzen duenak irabaziko du. Hala ere, Debagoieneko musika eskolek ez dute txapelketa soil moduan ikusten, eta emango zaizkien domina eta diplomez gain, jaialdia beste herri batzuetako piano-jotzaileekin harremana egin eta musikaren munduan murgiltzeko "aukera paregabe" moduan ikusten dute.

LABUR

## Bergara, bailarako ordezkatuena

Bergara izango da bailaratik piano ikasle gehien eramango dituena: 35 ikasle. Amaia Urdangarin Musika Eskolako piano irakasleak adierazi duenez, ikasleak "lan handia" egiten ari dira jaialdiari begira: "Oso motibatuta daude", dio.

Arrasate Musikaletik, berriz, 20 ikaslek eman dute izena eta Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolatik, 10 ikaslek. Elgetatik, 11 lagun joango dira. Eskoriatzatik, azkenik, hiru piano-jotzaile joango dira.

**MUSIKA**

# Arborea, zuzeneko lasaia eta atsegina

AEBetako bikoteak Zabalotegin joko du domekan, 19:00etan; sarrera, bost euro

**J.B.** > BERGARA

Musika lasaia eta atsegina ekarriko digu AEBetako Maine estatutik datorren Arborea izeneko taldeak. Shanti Curran eta Buck Curran bikoteak osatzen dute taldea eta folk eta indie estiloak uztartzen dituzte, batez ere. Finean, Zabalotegi aretorako ezin egokiagoa den zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da. Kontzertua domekan izango da, 19:00etan, eta sarrera bost eurotan jarri dute.

**'HOUSE OF STICKS', LAN BERRIA**

Naturatik eta naturaz egindako abestiak joko ditu bikoteak. Izan ere, naturarekiko lotura sakona erakusten du taldeak. Domekan lan berria aurkeztuko dute Zabalotegin: zortzi kantuz osatutako *House of sticks diskoa*, hain zuzen.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

**Maria Fagan** > Abeslaria

# "Aktore izan nahi nuen; influentziek eragin zidaten musikarako zaletasuna"

Ideiak argi ditu Maria Faganek. Musikaz maiteminduta dago 20 urteko arrasatearra. Gitarra esku artean duela, bailarako txokoak alaitzen ditu noiz edo noiz. Mery May du izen artistikoa Faganek eta 'Dreams' izeneko diskoarekin gerturatzen da gugana. Otsailaren 5ean aurkeztuko du lana Arrasaten. Horrez gain, Lan Harremanak ikasten dihardu Bilboko EHUn.

**NAROA ODRIOZOLA** > ARRASATE

**Gitarra esku artean duela heldu da gugana Maria Fagan, eta ez da harritzekoa; izan ere, gitarra eta bera bat direla esan daiteke. Bere sentimenduak islatzen ditu kantuetan, eta orain, diskoa atera berri duela, arrasatearrarekin hitz egin nahi izan dugu.**



NAROA ODRIOZOLA

**Zer da zuretzat musika?**

Dena. Egunero entzuten dut musika. Momentu txarretan asko laguntzen dit. Gustuko musika jarri eta sentimenduak ateratzeko balio dit.

**Abestea txikitatik gustuko izan duzun zaletasuna da?**

Baietz esan daiteke. Txikitan abesbatzan egon nintzen. Hala ere, aktore izan nahi nuela esan beharra dut.Uste dut influentziekin sortu zitzaidala abesteko zaletasuna. Musika asko entzun dut eta aita irlandarra izateak ere eragina izan du nigan, musika aldetik ikuskera zabalagoa izan dut-eta.

**Nondik dator Mery May?**

DBHn nengoela, betiko lagunekin elkartu eta talde bat osatzea erabaki genuen: Foxy Boxxi. Taldean hasi aurretik abestiak egiten nituen, baina etxean jotzeko bakarrik. Egun baten, lagun batek esan zidan ea zergatik ez nuen ematen kontzertua. Azkenean, animatu egin nintzen eta Gure Lekun eman nuen bakarkako lehendabiziko kontzertua.

**Danbakan parte hartu zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Oso esperientzia polita izan zen. Asko gustatu zitzaidan. Nire lehendabiziko kontzertu *formala* izan zen, aurretik tabernetan besterik ez nuen-eta jo.

**Zer dela eta erabaki zenuen lehiaketan parte hartzea?**

Probatu egin nahi nuen. Danbakak CDa grabatzeko aukera eskaintzen zuen, eta hori zen nire nahietako bat. Gainera, jendearentzat ezagun izan nahi nuen. Ordura arte, Arrasaten eta inguruetan bakarrik jotzen nuen eta zertxobait gehiago zabaltzea zen nire nahia.

**Danbakan parte hartu ondoren, desberdintasunik antzeman duzu?**

Bai; lehiaketan parte hartu ondoren, leku gehiagotatik deitzen didate jotzera joateko, eta serioago hartu dut.

**Musika: zaletasuna ala lana?**

Zaletasuna dela esango nuke. Hala ere, estresagarria samarra da eta batzuetan lan bihurtzen da. Hasieran, dena ondo etortzen zaizu, baina denborarekin baldintzak jartzen dituzu. Behintzat, afaria edo zerbait ordaintzea eskatzen duzu autoan zoazelako eta gasolina eta bidesariak ordaindu behar dituzulako.

**Kantuen letrak ingelesez egiten dituzu. Zer dela eta?**

Aita irlandarra da eta horrek eragina izan du. Gainera, gehien eragin nauten abeslariak ingelesak, irlandarrak eta amerikarrak dira. Horrez gain, hizkuntza horretan idazteko erraztasuna daukat eta kantuen errimak errazago egiten dira ingelesez gaztelaniaz edo euskaraz baino.

**Zertan inspiratzen zara letrak sortzeko?**

Sentimenduetan eta pasatzen zaizkidan gauzetan, baina pixkanaka hasi naiz zabaltzen. Letrak sortzeko ez dago prozesurik. Musika osatzen dut eta, gero, zein letra jarri pentsatzen dut. Melodia egitean grabatu egiten dut eta inspirazioa etortzean idazten hasten naiz.








NAROA ODRIOZOLA

**PERTSONALA**

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Lan Harremanak ikasten ari naiz Euskal Herriko Unibertsitatean, Bilbon. **Zaletasunak:** Musika, igeriketa, surfa, abestea, gitarra jotzea, saskibaloia... **Gustuko liburu bat:** Oscar Wilde-en *El retrato de Dorian Gray*. **Ikusitako azken filma:** *La duda,* John Patrick Shanleyrena. **Musika talde gogokoena:** U2. **Musikari bat:** Neil Young. **Amets bat:** Aktore izatea. **Bizitzako leloa:** *Alea jacta est*. **Musika instrumentu bat:** Gitarra. **Bidaiatzeko toki bat:** Irlanda.

**Noiz aurkeztuko duzu CDa?**

Otsailaren 5ean aurkeztuko dut. Foxy Boxxi taldearekin CDa atera nuen, baina hau bakarkako lehendabiziko CDa da. Sei abesti bakarrik ditu, akustikoa oso pisutsua gerta daitekeelako. Ilusio handiz egindako lana da.

**Abesteaz gain, gitarra jotzen duzu.**

7 urterekin, zeharkako flauta jotzen hasi nintzen eta 13 urterekin, musika taldeen gitarristak ikusita *aluzinatu* egiten nuen. Horregatik, gitarra jotzen ikastea erabaki nuen.

**Horrez gain, Bilbon ari zara Lan Harremanak ikasten. Nolatan?**

Egia esanda, ondo pentsatu gabe aukeratutako zerbait da. Batxilerretik irtetean ez nuen oso argi zer egin nahi nuen. Harreman Publikoak egitea pentsatu nuen, baina ez neukan oso argi lau urteko karrera batean sartu gura nuen. Orduan, Lan Harremanak karrera hiru urtekoa zela ikusi eta ikasgai batzuk gustatu zitzaizkidanez, hori egitea erabaki nuen. Azkeneko urtea egiten ari naiz.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

## 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+ BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+ BEZ).**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, bi bainugela, bi balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30.

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 m2). Jantzita utziko genuke. 650 34 89 85.

**Arrasate.** San Andres auzoan 58 metro koadroko etxea salgai edo errentan. Bi logela, bainugela bat, balkoi bat, sukaldea, egongela eta trastelekua. Deitu 635 73 94 91 telefonora.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Deitu 652 70 12 49 telefonora.

**Oñati.** Etxe egin berria salgai Kale Barrian. Prezio oso interesgarria. 652 75 60 52.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalen. Guztiz berritua. Bi logela. Altzariekin. 629 38 29 96.

**Hendaia.** Hendaian gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu helbide honetara idatzi: 'davidlorea@aol.com'. Edo telefonoz deitu: 688 68 11 40.

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34

**Bergara edo Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 639 94 48 65 edo 615 57 81 54.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 609 38 86 47.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 671 33 75 54.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 943 76 32 85.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 657 08 96 69.

**Donostian** etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87.

**Oñati.** Bikoteak etxea hartuko luke errentan, hiru gela eta igogailuarekin. 665 75 59 13

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 250 euro hilean. Deitu 606 74 42 37 telefonora.

**Arrasate.** Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak) hilean. Internetekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: septunova.zuza@centrum.cz, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. 638 15 76 98 edo 638 15 77 00.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. 647 28 82 41.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 608 57 97 70 edo 665 71 69 10.

**Oñati.** Logela hartuko nuke errentan partekatutako etxeren batean. 635 70 07 92.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 688 25 56 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Aldaigainen. 14:00etatik aurrera deitu. Deitu 680 84 09 45 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. deitu 658 73 35 96 zenbakira.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bulegorako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. Deitu 943 76 33 56 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. 943 76 53 55.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. 943 79 54 21 edo 619 42 75 21.

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Umeak ere zainduko lituzke. Deitu 943 53 33 92 telefonora eta Felisarengatik galdetu.

**Arrasate.** Emakume arduratsuak lan egingo luke etxeak garbitzen, tabernan edota mekanika lanetan. Eli. 630 94 68 37.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27.

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo edozein lanetarako prest ,orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 telefonora.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko emakumea gertu. Deitu 691 03 25 02 telefonora.

**Bergara.** Bikotea gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak edo pertsona nagusiak arratsaldez zaintzeko. Itziar. Deitu 695 78 22 47 edo 943 76 17 17 zenbakietara.

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96.

**Bergara.** Larunbatetan eta domeketan egunkariak banatzen egingo nuke lan. Deitu 654 98 69 14 telefonora.

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 943 76 28 12 edo 943 76 29 52 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 660 57 33 92.

**Bergara.** Neska goiz eta arratsaldez etxebizitzak garbitzeko gertu. 696 84 19 51.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 637 28 58 52.

**Bergara.** Pertsonak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askotako esperientzia. Antonio. 630 65 30 22.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Esperientziaduna. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Denbora libre luzea daukan gazte aramaioar zintzo eta esperientziaduna baso-lan zein baserriko lanak egiteko gertu. Nire materialen artean motozerra txikia daukat. Deitu 649 54 24 61 telefonora.

**Debagoiena.** Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelania ikasten ari naiz eta ingelesez hitz egiten dut. Idatzi mezu bat: *septunova.zuza@centrum.cz* edo telefonoa:. 638 15 77 12.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu gerontologia sektorean lan egiteko, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. 943 79 04 69.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. Deitu 637 12 15 18 telefonora.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49.

**Debagoiena.** Pertsona edadetuen zainketarako edo edozein motatako garbiketa lanak egiteko. Gainera, igeltsero-laguntzaile edo peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 697 54 28 76.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Orduka, egun osoz zein etxean bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldeetan, aste bukaeretan eta jaiegunetan. Klinika laguntzaile titulua daukat. Itxaso. 943 74 82 09.

**Debagoiena.** Pintore lanak egingo nituzke partikularrentzat edo enpresentzat. 697 88 35 62.

**Debagoiena** Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko. 691 03 25 02.

**Kamioi gidari** baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60.

**Oñati** Neska euskalduna, arduratsua haurrak eta etxeko gauzak egiteko prest. Interesa baduzue deitu zenbaki hontara. 618 09 47 87 edo 943 78 15 10.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Matematika eta euskara eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. 652 75 68 95.

**Bergaran.** Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eskolak emateko. Eskolak eguerdian jaso nahi nituzke. 639 03 43 58.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Santa Marinan. 696 37 92 29.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate** Goi maialako ingeneritza ikasten dabilen neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. 606 88 94 20.

**Arrasate edo Aretxabaletan** batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. 653 01 76 67.

**Bergara.** Aleman Filologian lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. 660 52 25 01.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26.

**Bergara.** Ingeleseko irakaslea errefortzurako eta azterketak gainditzeko eskolak emateko prest. Oso merke. Arantzazu. 616 12 56 29.

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Deitu 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Oñati.** Ingeniaritza ikasten dabilen neska arduratsua Oñatin eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldeetan 667 52 83 29 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Zaldi hispaniar-arabiarra** salgai. Monturakoa. 7 urte. Zuria. 616 00 34 29.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Txakurkume jaioberriak ematen ditut opari. Coli arrazaren eta euskal artzain-txakurren nahasketa dira. 650 27 86 95.

### 704. BESTELAKOAK

**Bi setter** eme daude jasoak, aurreko astelehenetik, urtarrilak 11. Zuri-beltzak dira. Deitu 625 70 86 49 telefono zenbakira.

**Txakurtxoa Bergaran.** Txakur txikitxoa aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. Deitu 620 61 91 34 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Hiru plazako sofa beixa (300 euro), sarrerako altzaria (100 euro) eta kristalezko mahai luzagarria (100 euro). Ia berriak. Indesit garbigailua, 2009koa, 100 euro. Deitu 635 74 27 43 telefono zenbakira.

**Bizikleta estatikoa** salgai. Sinplea, arina eta berria. Deitu 670 08 12 16 telefono zenbakira.

**DJ maleta.** Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorendako lekua. 648 06 79 85.

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53.

**Eskiatzeko** trajea salgai Debagoienean. 943 79 65 99 edo 639 48 60 49.

**Eskiatzeko ekipo** berria salgai. Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53.

**Ezkontza soinekoa** salgai. 38-40 neurrikoa. 635 70 07 92.

**GPSa.** Mendirako GPSa salgai. Egokia oinez, BTT, motor eta abarrerako. Magellan Triton 500. Ordenagailura konexioa, memoria txartela mapendako eta Euskal Herri, Pirinio, Europako mendi eta abarreko mapa zehatzekin. 150 euro. 656 71 41 59.

**Golf** pilotak salgai Debagoienean. 943 79 65 99 edo 639 48 60 49.

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. 630 29 16 01.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 €. 630 29 16 01.

**Tabike-armairua** salgai. Debagoienean. 670 08 12 16.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 63 13

**Autorako** umeendako segurtasun aulkia behar dut. 9-36 kilo artekoa. 650 57 36 07.

**Moisesa** erosiko nuke. Deitu 650 57 36 07 telefonora.

### 803. EMAN

**Somierra.** 150x190ko somierra ematen da opari. Ohez, hankak eta somierra. Egoera oso onean. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

### 804. HARTU

**Trona.** Erabiltzen ez duzun umeendako trona badaukazu, gustura erosi edo hartuko nuke opari. Aldez aurretik eskerrik asko. 635 75 54 53

### 806. GALDU

**Amantala Oñatin.** Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, hilak 22. 943 78 00 01 edo 943 78 08 09.

**Eraztuneko harria** galdu nuen Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara). Amatista da. 637 77 45 57.

**Sakelako telefonoa** galdu nuen Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Sarituko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. 676 66 02 66.

**Zorroa eta memoria.** Astelehenean, hilaren 25ean, Oñatiko Bidebarrieta kalean, 18:30 inguruan, arkatzak eramateko laukidun zorro iluna galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Eskertuko dut. 653 71 79 81 edo 943 53 44 71.

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak** aurkitu ditut Arrasaten, Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara:. 943 79 48 02.

**Giltzak** aurkitu ditut Ugarrixan (Bergara). Bi giltzatako dira: batek 3 giltza ditu eta besteak 12. 689 70 44 17.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 39 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteagoarekin. Interesa izanez gero, bidali SMS bat telefono honetara:. 615 39 82 46.

### 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan hiru pertsona joaten gara auto berean. Bidaia konpartitu nahi duenak dei diezagula. 635 20 33 14.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
